




**ARETXABALETAKO
ARETXABALETAKO
LGTBIQ+
LGTBIQ+
ERREALITATEAK
ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN
ETA NEURRIEN
DISEINUA
DISEINUA**



AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2 Marko Teorikoa	3
2.1 . Heteropatriarkatua. Zer da?	3
2.1.1 Sexu-genero sistema	4
2.1.2 Heterosexualitatea erregimen politiko gisa	5
2.2 LGTBIQ+ siglak garrantzizko fikzio eta erresistentzia	6
2.2.1 Aniztasuna argitzen	7
2.2.2 Zentzugabeko falazia: LGTBIQ+ hiritarra da	8
2.2.3 Politika publiko municipalista ez-heterosexualak	9
2.2.4 LGTBIQ+ eskubideen inguruko araudia	9
3 Jasotzeko erremintak: Metodologia	23
3.1 Parte-hartzaileen profilak	23
3.1.1 Norbanakoak	23
3.1.2 Eragileak	23
3.1.3 Udala	24
4 Ondorioak	25
4.1 Nolako da Aretxabaleta? Idiosinkrasia eta ezaugarriak	25
4.1.1 Tradizioa eta familia	26
4.1.2 Polarizazioa eta segregazioa	28
4.1.3 Futbola	29
4.1.4 Euskararen garrantzia	32
4.1.5 Sexilioa	33
4.1.6 Zuzentasun politikoa	35
4.2 Zigorrak eta mugak	37
4.2.1 Indarkeria	38
4.2.2 Umorea eta iseka	40
4.2.3 Estetika	41
4.2.4 Zurrumurruek	42
4.2.5 Bakardadea	43
4.3 Aktibotasuna	43
4.3.1 LGTBIQ+ borroka bizirik	43
4.3.2 Erreferenteen beharra/zama	44
4.3.3 Aliantzak eta harremanak	45
4.3.4 Aisialdiaren erabilera	46
4.3.5 Zilegitasuna eta erreakzionarismoa	48
5 Ardurak eta eragiteko eremuak	49
6 Hemendik aurrera zer? Lehentasunezko neurriak	51



1. SARRERA



ARETXABALETAKO LGTBIQ+ ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN DISEINUA

Aretxabaleta herri aktibo eta inplikaturik dago. Bertan, LGTBIQ+ komunitatea antolatuta dago, bi talde aktibo daude herrian, eta agenda propioa dute. Baina, aldi berean, herri polarizatu eta segmentatu bat da, zeinetan zuzentasun politikoak eta futbol maskulinoak oso berebiziko garrantzia hartzen duten. Horrek guztiak, eragin zuzena du LGTBIQ+ komunitatean, eta hori bera izan da aztertu nahi izan duguna.


Txosten honetan, Aretxabaletako LGTBIQ+ komunitatearen argazki bat aurkezten da. Haien nahiak, oztopoak, antolatzeko moduak eta eskaerak aztertzen dituen. Heterosexuak ez diren politika publikoak diseinatzeko hasiera bat besterik ez da, Aretxabaleta, arauaren bazterretan bizi direnentzat leku bizigarri eta desiragarri bihurtu nahi duena.

Horretarako, herriko LGTBIQ+ pertsona ezberdinei elkarrizketa egin diegu, baita erakunde garrantzitsuekin ere. Lan asko dago egiteko, baina prestutasun handia ere topatu dugu. Diagnostiko honek, Aretxabaletan LGTBIQ+ eskubideen alde lan egiten duten pertsonak aitortu nahi ditu, baita erreparatu ere. Kolektiboaren eskubideen alde borrokatzea plazer handia izan da askorentzat, harrotasuna bizitzeko modu bat; baina, era berean, bidea irekitzeak ere iseka, irain eta fobia asko ekarri ditu.


Diagnostiko hau Aretxabaletako LGTBIQ+ pertsonen errealitatearen argazki bat da, baina ez da soilik LGTBIQ+ pertsonentzat. Komunitate heterosexual osoak euren fobien gaineko kontzientzia eta erantzukizuna hartzeko gonbidapena ere bada. Gonbita da, halaber, aniztasunaren defentsan parte har dezaten.

Hurrengo orrietan gogortasuna eta plazera aurkituko dituzu. Erresistentzia eta dibertsioa. Minak eta proposamenak.





2. MARKO TEORIKOA



ARETXABALETAKO LGTBIQ+ ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN DISEINUA

2.1 . Heteropatriarkatua. Zer da?

Patriarkatua sistema oso konplexua da, indarkerian eta boterean oinarritzen dena eta testuinguru kulturalera eta une historikoetara egokitzeko gaitasun handia duena. Gainera, modu eraginkorrean eta estrukturalen jarduten du, bereziki emakumeen, LGTBIQ+ pertsonen, migratzaileen, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta abarren aurka. Instituzioek sistema patriarkala ahultzeko erantzukizuna dute, politika publiko feministak eta ez-heterosexuak diseinatu, horrela, arauz kanpo kokatzen diren subjektuentzat gizartea leku demokratiko eta bizigarriagoa bilakatuz.

Heteropatriarkatua bi dominazio sistemaren bidez antolatzen da: sexu-genero sistema eta erregimen heterosexuala. Biak ulertzea ezinbestekoa da ikerketan zehar agertuko diren ondorioak eta kategoriak ulertu ahal izateko.

2.1.1 Sexua-genero sistema

Generoa eta sexua sozialki eraikiak dira. Simone de Beauvoir filosofoak 1949an idatzitako *Bigarren Sexua* liburuan emakumea sozialki eraikia izan dela argudiatzen du, gizonaren mendekoa izateko, zehazki. Menderakuntza hori ez da naturala, genero desberdintasuna betikotzen duten eraikuntza sozial eta kulturalaren emaitza baizik. Horregatik, “emakume ez da jaiotzen, emakume izatera iristen da”. Beraz, **generoa ez da baldintza biologiko bat, baizik eta sozialki eraikitako identitate bat, emakumeei jaiotzetik inposatzen zaiena**, eta botere desorekak eta diskriminazioa sortzen ditu testuinguru gehienetan.

Beauvoirren nozioa hartuta, Gayle Rubin feministak sexu-genero sistema definitu zuen. Sexu - genero sistema, akordio multzo bat da, gizarte batek sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzeko xedapen multzoa, hain zuzen; non eraldatuak izan diren giza beharrak asetzen diren (1986). Sexu- sistemaren bitartez antolatuko da gure gizartea, eta balio multzoak banatuko dira genero eta sexuaren arabera. Hau da, emakumeentzako rolak, zereginak eta izateko erak justifikatuko dira, baita gizonentzako rol, zeregin eta izateko erak ere. Binomikoak eta kontrajarriak izango dira gehienetan gainera. Batek boterea izango du (gizona), eta besteak, ordea, dominazioa (emakumea). Horietarik kanpo dagoena, beraz, bazterreko subjektu moduan aurkeztua da, subalternitate kriminalizatuak eraikiz (intersexuala, transa, LGTBIQ+, ...).

Beauvoirrek eta Rubinek argi uzten digute generoa eraikuntza sozial bat dela, eta horri jarraiki, baina beste autore batzuek, Judith Butler (1990) edo Jule Goikoitxea (2021) esaterako, **biologian dagoen ikuskera esentzialistarekin apurtu behar dela**



defendatzen dute. Alegia, generoa erritu eta praktika kultural jakin batzuen jarduera errepikatuaren bidez egiten eta frogatzen den zerbait denez, gorputzetan ezarrita egongo da (Butler); eta, gorputz horiek produzitu egiten dira, ez dira neutroak, baizik eta eraikiak (Goikoitxea).

Hortaz, sexua eta generoa patriarkatuaren biziraupenerako gorputzen sexuatzeko prozesu berdinen markoan kokatu behar ditugu.

Fintze aldera, gainera, beste hiru kontzeptu kontuan izan nahi dugu, ikerketa osoan erabiliko baititugu:

1. Genero identitatea: bakoitzak bere generoarekiko duen lotura, pertzepzio eta identifikazio maila da. Bi hitz erabiliko ditugu. Zisgenero (jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatzen dena) eta transgenero (jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatu ez, eta trantsizio prozesu bat abiarazi dutenak).
2. Genero adierazpena: norberak bere genero identitatea adierazteko duen era (izena, estetika, ahotsa, ..)
3. Sexu-lehentasuna: Pertsona batek beste genero batetik, genero berdinekiko edo genero ezberdinekiko duen (edo ez duen) ekarpen emozional, erromantiko eta sexuala da.

2.1.2 Heterosexualitatea erregimen politiko gisa

Heterosexualitatea, orientazio eta praktika sexu-afektiboetatik haratago, erregimen politiko bezala ulertzea proposatzen dugu. Honela, analitikoki eraginkorrakoak izan daitezkeen politika publiko transbertsalagoak diseinatu ditzakegulako. Alegia, **desira indibiduala alde batera utzita, gizartearen antolaketa eta harremanak arautzen dituen sistema moduan definitzen dugu heterosexualitea.**

Monique Wittig izan zen heterosexualitatea erregimen moduan definitu zuena 1992. urtean. Ordena naturala erreproduzitzeko mekanismo gisa funtzionatzen zuela argudiatu zuen. Baina, zer da ordena naturala, eta zergatik izan daiteke kaltegarria LGTBIQ+ pertsonentzako? Ordena naturala araua da, ona eta legitimoa den hori, hegemonikoa eta ondo ikusia dagoena. Ordena hori, unibertsala bilakatuko da eta, hortaz, naturalizatu. Gizona, txuria, heteroa, klasea ertainekoa edo gorputz funtzionala izango dira ordena naturala. Kontran, hortik kanpo dagoen guztia kontraposizioan ulertuko dugu: periferikoa, subalternoa, zikina, gaiztoa. Guzti hori izango da emakumea, arrazializatua, LGTBIQ+ pertsonak, pobrea, aniztasun funtzionalean kokatua izan den gorputza eta abar.



Ordena naturala kokatu izaten da testuinguru eta garaiaren arabera, eta birmoldatzen joango da bere erreprodukzioarako. Horregatik, bere biziraupena bermatzeko mekanismoak garatuko ditu. Nola? Indarkeriaren bidez (fisikoa, materiala eta sinbolikoa) eta normalizazio prozesuen bidez. Gizon eta emakume maskulinoak eta femeninoak sortu, familian nuklearraren baitan erreproduzitu, beste gizon eta emakume batzuk sortu eta, horrela, etengabean. Alegia, **heterosexualitatea ez da orientazio sexual bat soilik, ordena naturala (status quo -a) mantentzeko mekanismo biolentoa baizik.**

Homosexualitatea heterosexualitatearen kontrajartze eta dikotomia negatibo moduan kokatuko da, horrela, sexualitate txar eta onaren arteko eraikuntza sendotuz. Ondorioz, sistemikoa eta binomikoaz aparte, heterosexualitatea ere dogmatikoa izango da, emakumea gizonaren osagarri “natural” bezala ulertzen duen dogma, hain zuzen ere, erreprodukzioaren diskurtsoaren bitartez sostengatzen dena. (Lonzi, 1978).

Guzti hau kontuan izanda, **ezinbestekoa da heterosexualitatea modu politikoan ulertzea, horrela egingo diogulako aurre indarkeria eta zapalkuntza sistema gisa, kaletik zein politika publikoen bitartez.** Hau da, beharrezkoa da gizon eta emakume kategoriak modu politiko, irudizko, zein sinbolikoan desegitea Wittingek (1992) zioen bezala, ez daudelako bi sexu, zapaltzailea den bat eta zapaldua den bestea baizik. Hortaz, zapalkuntza da sexuak eraikitzen dituen eta alderantziz. Aurretik aipatu moduan, kapitalismoak bizirauteko zapaldu-zapaltzaile harremanak behar dituelako ezinbestean. Laburbilduz, norberaren desira indibidualetik haratago, heteroarauak produzituak diren bi sexuak antagonikoak eta ezinbestean osagarriak diren ideia sostengatzeko mekanismoa da, maitasunaren izenean, emakumeek dohainik zaindu, eta bizitza sostengatu dezaten.

2.2 LGTBIQ+ siglak garrantzizko fikzioa eta erresistentzia

LGTBIQ+ pertsonen inguruan hitz egiten dugunean, Brigitte Vasallok dioen moduan, komunitate bat baino gehiago, sigla jakin batzuen metaketaz hitz egin behar dugu. Pertsona heterogeneo eta askotarikoez osaturiko multzo bat da, eta sexu-disidentzian kokatzearen, elementu aglutinatzaile komunak dituzte -nahiz eta, gehienetan, sigla hauek osatzen dituzten kolektibo guztiak elkarrengandik bananduta egon-. Azken finean, **elkartuta hierarkikoki funtzionatzen duen zatikatutako taldea da.**

LGTBIQ+ pertsonak dituzten nahiak, helburuak eta estrategiak ere oso desberdinak dira. Hori bai, badute zerbait komunean: arauaz kanpoko kokapena, eta etengabe epaitzen dituen kanpo-begirada heterosexuala. Ez du zerikusik klase ertaineko gizon



homosexual zuri batek bizi duena, edo sexu-langilea den emakume bisexual beltz batek bizi duena. A priori, kostatuko litzaiguke komunitate berean ulertzea eta, askotan, agenda eta helburu desberdinak eta kontrajarriak izango dituzte. Hala ere, talde berekoak izan daitezke, LGTBIQ+ komunitatekoak, erregimen heterosexualak zeharkatuko dituenak. Biak zeharkatzen dituen begirada hori da, oso modu desberdinean bada ere, LGTBIQ+ deituko diogun fikzio politiko baten existentzia baieztatzen diguna. Etengabeko erreproduzio honek, patriarkatuak ezarritako sistema heterosexualean du oinarria, eta heterosexualitatea zilegitzat jotzera eramaten gaitu, baita bere eredu sexuala onartzera ere.

Ordea, interseksionalitateak, zapalkuntza eta menderatze desberdinak elkarriketan jartzeko balio digun tresnak, aukera emango digu subjektu hain desberdin horiek gizarte-hierarkia berean ez kokatzeko. **Horregatik guztiagatik, LGTBIQ+ kontzeptua konglomeratu politiko bat bezala ulertzen dugu, lagungarria zaigun fikzio politiko bezala.** Gainera, LGTBIQ+ kontzeptua eztabaidagarria izan daitekeen arren, eraikuntza sozial bat den heinean, moldagarria ere bada, eraldatzen joaten dena.

2.2.1 Aniztasuna argitzen

Txosten honetan, LGTBIQ+ nomenklatura erabiliko dugu, baina jada esan dugun moduan, izki bakoitza errealitate ezberdin bati egingo dio erreferentzia.

Lesbiana (L)	Genero bereko beste pertsona batek emozionalki, afektiboki, erromantikoki eta/edo sexualki erakartzen duela sentitzen duen emakumea.
Gay (G)	Genero bereko beste batzuekiko erakartzen duen pertsona batek emozional, afektiboki eta/edo sexualki sentitzen duen gizona.
Trans (T)	Gorputzaren arabera jaiotzean esleitutako generoarekin ados edo eroso ez, eta haien burua beste genero kategoriatan identifikatzen duten pertsonak.

Bisexualitatea (B)	Genero bat baino gehiagorekin erakarpen erromantiko, afektibo eta/edo sexuala duten pertsonak, ez derrigorrez aldi berean, ez derrigorrez modu berean eta ez derrigorrez maila eta intentsitate berean.
Intersexuala (I)	Medikuntzak kategorizatzen dituen sexu banaketa (ar/eme) bitarretik kanpo kokatzen diren gorputzak, haien genitalak, hormonak, ugal apartuak edota kromosomak ezin direlako kategoria bitar horietan kokatu.
Plus (+)	Bestelako aukera eta lehentasunak jasotzen ditu, hala nola, asexualitatea, beste pertsonetako erakarpen erotikorik edo/eta erromantikorik ez duten pertsonak.

2.2.2 Zentzugabeko falazia: LGTBIQ+a hiritarra da

Hiria eta herria bi elementu kontrajarri eta binomiko moduan ulertu izan dira historikoki, menderatze-harreman batean oinarritzen diren bi elementu gisa, hierarkia batean eratuak balira bezala. Bata ikusgarria izango da (hiria) eta bestea ezkutukoa eta bukolikoa (herria). Heteroaraua bezala, hau ere ordena sozialaren mekanismo bat da. Herriaren inguruan oso imajinario sendo bat sortu da ideologia modernizatzailleengatik: sozialki eta ekonomikoki atzeratua. Imajinario bat den heinean, sustraituta ere badago Euskal Herrian, baina irreal eta estigmatizalea besterik ez da.

Heteroarauaren aldagaiarekin gurutzatzen badugu herria eta hiriaren arteko dikotomia, hiria denez iruditegi kolektiboan modernoa dena, LGTBIQ+ idearioa hiriari lotua joango da. Kontran, herria denez "betikoa", heterosexuala izango da. Zentzugabeko falazia bat besterik ez da, eta zergatik diogu hau? datuek, ordea, erakusten digutelako eraso lgtbiq+fobiko gehiago ematen dela hirietan herrietan baino.

Hala ere, hiria eta herriaren arteko aldeak ezin ditugu modu dikotomikoan ulertu, ez on eta txarraren logiketan, baizik eta konplexutasunean.

2.2.3 Politika publiko munizipalistak ez heterosexuak

Herrietan bizi-proiektu anitzak garatzen dira. Begirada dikotomiko eta urbanozentrista horren ondorioz, ordea, jakintzak, instituzioek egiten duten lana eta narratiba sozialak baliogabetu ditugu, ikusgaitzak bihurtuz. Euskal Herrian burutu diren LGTBIQ+ diagnostiko gehienek baieztatzen dute, ordea, **herriak ez direla hiriak baino heterosexuak, ezta horietan baino fobia eta desira disidente gutxiago dagoenik**. Tamalez, hiriko tresna analitikoekin aztertu ditugu eta, askotan, bere politika publikoak begirada horrekin abian ipini ditugu, ekstraktibismo ariketa perbertsu bat eginez.

Zentzu honetan, udal gobernuek politika publikoetan begirada eta lidergo ez-heterosexuala burutzeko aukera anitzagoak daude, udalgintza ez-heterosexuala eta feminista martxan jarritz. Herriek hurbiltasun handiagoa dute instituzio eta herritarraren artean eta, horri esker, haien beharrak identifikatu eta hurbileko udal-politika eraginkorrak eta eraldatzaileak diseinatu daitezke modu errazago eta azkarragoan.

Aldi berean, aipatu beharra dugu hiriaren testuingurua izan daitekela, oro har, eremu irekiago bat LGTBIQ+ pertsonentzat hainbat arrazoiengatik (hiriak ematen duen anonimotasuna, aisialdi aukera zabalagoa, etab.) eta herria batzuetan itogarriagoa, kasuak kasu. Baina irekitasunerantz jotzeko aukera falta baten aurrean, instituzioek lan handiagoa egin dezakete LGTBIQ+ pertsonen bizitzak hobetzeko.

2.2.4 LGTBIQ+ eskubideen inguruko araudia

Marko legegileari dagokionean, LGTBIQ+ pertsonak oraindik ere hutsune eta traba batzuei aurre egin behar dieten arren, azken urteetan aurrerapauso handiak eman dira LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko legeen diseinu eta aplikazioan. Aurkezten den proposamenaren euskarri juridikoa azaltzen da Jarraian, proposatuko diren neurri eta politiken basaleku legala hain zuzen ere. Proposamen hau eta ondorengo ibilbidea eratzeko, lau araudi-esparru nagusi hartuko ditugu kontutan:

- Nazioarteko arau esparrua.
- Europar Batasuneko arau esparrua.
- Espainiar estatuko arau esparrua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua.



Nazioarteko arau esparrua

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)
 - 1. Artikulua “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.”
 - 2. Artikulua “Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.”
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)
 - 2.1. Artikulua “Itun honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du bere lurraldean dauden eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei itun honetan aitortutako eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste era batekoa, jatorri nazionala edo soziala, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-baldintza kontuan hartu gabe.”
- Yogyakarta printzipioak (2006): Giza Eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitatearen alorrean ere aplikatzeari buruzko printzipio-multzo bat dira, estatuak LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzera bultzatuz.
- Homofobiaren eta sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurkako adierazpena (2008ko abenduaren 18). “Pertsonen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak ezabatzea, haien sexu-orientazio eta genero-identitatea edozein izanik ere.”
- Giza Eskubideen Kontseiluaren sexu-orientazio eta genero-identitatearen inguruko 17/19 ebazpena (2011). “Giza Eskubideak, Sexu Orientazioa eta Genero Identitatea” izenburua duen ebazpenak mundu osoko sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kezka jorratzen du, eta neurriak hartzeko eskatzen die estatuari, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeria eta diskriminazioa prebenitzeko eta eta horren gainean esku-hartzeko.

- Giza eskubideen, Sexu-orientazio eta Genero- identitatearen inguruko NBEko Batzar Nagusiaren ebazpena (2012ko ekainaren 4ean). LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria giza eskubideen urraketa direla onartzen du, eta estatu kideei dei egiten die neurriak har ditzaten urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko. Ebazpenak, halaber, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioari eskatzen dio gaiari buruzko txosten bat prestatzeko eta informazio-bilera bat antolatzeko, LGBTI pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronkak eztabaidatzeko.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 27/32 ebazpena - “Giza eskubideak, Sexu-orientazioa eta Genero- identitatea” (2014ko irailaren 26ean). Eskubideen urraketa moduan hartzen ditu sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa eta indarkeria, eta giza eskubideen urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak hartzearen garrantzia nabarmentzen du. 27/32 Ebazpenak estatuei eskatzen die pertsona guztien giza eskubideen babesa bermatzeko, haien orientazio sexuala eta genero-identitatea alde batera utzita, eta LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria prebenitzeko eta horri heltzeko neurri zehatzak hartzeko.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 32/2 ebazpena - “Sexu-orientazio eta genero-ideantitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa” (2016ko ekainaren 30ean).
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa bermatzeko maila internazionalan indarrean dauden tresnen aplikazioa ebaluatu, eta horien indargune eta hutsuneak identifikatu.
 - Herritarrengan sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kontzientzia zabaltzea eta indarkeria eta diskriminazioaren muin eta arrazoi nagusiak identifikatu.
 - Estatuekin eta kasuan kasuko beste interesdun batzueki, hitz egitea. Nazio Batuen organismoak, programak eta funtsak, giza eskubideak, giza eskubideen erakunde nazionalak, gizarte zibila eta erakunde akademikoak, eta haiekin kontsultak egitea; A/HRC/RES/32/2 eta GE.16-12176 3.

- Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik indarkeriarik eta diskriminaziorik ez jasotzeko, estatuekin lankidetzen, babeserako neurriak diseinatu eta aplikatzea.
- Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren arrazoi anitz, elkarlotu eta interseksionalei aurre egitea.
- Aholkularitza-zerbitzuak antolatzea, erraztea eta babestea. Laguntza teknikoa eskaini eta gaitasunak sustatzea. Baita, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren aurrean jarduteko estatu ezberdinek dituzten neurriak babesteko kooperazio internazionala.
- Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 41/18 ebazpena - "Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babeserako aditu independentearen mandatua" (2019ko uztailaren 19an). Aditu independente bat izendatuko da, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babesa abordatzeko. Aditu independentea arduratuko da LGBTI+ pertsonen giza eskubideen egoera mundu osoan monitorizatzeaz, indarkeria- eta diskriminazio-kasuak ikertzeaz, LGBTI+ pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronka onenei buruzko informazioa emateaz eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluari urteko txostenak aurkezteaz.

Europar Batasuneko arau esparrua

- Giza Eskubideen Europako Konbentzioa (1950).
 - "Konbentzio honetan aitortutako eskubide eta askatasunen gozamina inolako bereizketarik gabe ziurtatu behar da, sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste jatorri nazional edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste nolakotasunak edozein izanik ere. "
- Europako Kontseiluaren 756. Ebazpena eta 934. Gomendioa, "pertsona homosexualei dagokienean"(1981).

- 756. ebazpena: Estatu kideei eskatzen die sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioari aurre egiteko neurriak har ditzatela eta homosexualen tratu-berdintasuna berma dezatela enpleguaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren arloetan, besteak beste.
- 934 Gomendioa: 756. ebazpena osatzen du, orientazio zehatzagoa ematen baitu homosexualenganako diskriminazioari heltzeko neurriei dagokienean. Berdintasuna sustatzeko eta pertsona homosexualen eskubideak babesteko ezar daitezkeen politikei eta legegintza-neurriei buruzko gomendio espezifikoak jasotzen ditu estatu kideentzat.
- Europako Parlamentuaren 1984ko martxoaren 13ko Ebazpena, lantokiko sexu diskriminazioei dagokiena. Berriaz lantzen ditu lantokietako sexu-orientazioagatik jasotzen diren diskriminazioak.
- Europako Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko Ebazpena, transexualen aurkako diskriminazioari dagokiona. Pertsona transexualek dituzten kezka eta erronka espezifikoek heldzea du helburu, eta diskriminazioaren aurrean jarduteko eta oinarrizko giza eskubideak bermatzera bultzaten ditu.
- Europako Parlamentuak 1994ko otsailaren 8an emandako ebazpena, Europako Erkidegoko homosexualen eta lesbianen eskubideen berdintasunerako.
- Amsterdango Ituna 1997ko urriaren 2an. 13.1. artikulua "Itun honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe, eta Erkidegoari ematen dizkion eskumenen muga barruan, Kontseiluak, 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, neurri egokiak hartuko ditu sexuagatik, arrazagatik edo jatorri etnikoagatik, erlijio edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik diren bereizkeriaren aurka borrokatzeko. "
- Europako Parlamentuaren ebazpena (2006ko urtarrilaren 18an). Lesbianen eta gayen eskubideen berdintasunari eta diskriminazioaren eta homofobiaren aurkako borroka dagozkionak. Estatu kide guztiei eskatzen zaie xedapen juridiko eta administratibo guztietan tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzen ziurtatu dezaten, xedapen pertsonen sexu-orientazioa edozein izanik ere.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, Nazio Batuetako giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokiona (2011ko irailaren 28an).



- Europako Parlamentuaren Ebazpena, Europan homofobiaren aurkako borrokari dagokiona (2012ko maiatzaren 24ean). Gako nagusi batzuk ondorengo hauek izan ziren.
 - LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria gaitzestea.
 - Estatu kideei dei egiten zaie neurri zehatzak har ditzaten LGBTI pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko bizitzako esparru guztietan, baita enpleguan, hezkuntzan, arreta medikoan eta etxebizitzan ere.
 - Hezkuntzak LGBTI pertsonetako errespetua eta tolerantzia sustatzeko duen funtsezko zeregina ezagutzea.
 - Estatu kideei eskatzea neurriak har ditzatela familiaren eremuko eta LGBTI pertsonentzako osasun-zerbitzuetarako sarbideari dagokion diskriminazioari aurre egiteko
 - LGBTI pertsonentzat adierazpen-askatasunaren eta bilera baketsuen garrantzia aitortzea, bai eta EBtik kanpoko herrialdeetan jazartuak diren LGBTI pertsonak babesteko beharra ere.

- Lunacek informea (2014). Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik jasotzen den diskriminazioa borrokatzeko eta homofobiaren kontra jarduteko EBren ibilbide-orriari buruzko txostena.

- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren berrikuspena (2016). Berretsi egiten da ". Debeakututa dago bereizkeria oro, eta, bereziki, sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoengatik, hizkuntza, erlijio edo sinesmenengatik, iritzi politikoengatik edo beste edozeinengatik, gutxiengo nazional bateko kide izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik. "

- Europako Parlamentuaren ebazpena, EB LGBTIQ pertsonentzako askatasun-eremu deklaratzeari dagokiona (2021eko martxoaren 11an). EB LGBTIQ pertsonentzako askatasun-eremu gisa deklaratzeari.

Espainiar estatuko arau esparrua



Kasu honetan, estatu mailan aurretik bestelako lege batzuk diseinatu badira ere, transen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailak 28ko 4/2023 legea hartuko dugu kontuan nagusiki, LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko esanguratsuena delako. Garrantzia berezia eman diogu hiru alderdietan:

- Eragin esparru eta haien funtzioak modu oso zehatzean argitzen ditu legeak. Horretarako, bereziki begiratuko ditugu I. Kapituluaren 4, 5, 6 eta 7. artikulua. Bertan, botere publikoen betebeharrak eta ekimenak zehazten dira, hala nola, “babes, errekonozimendu, sentsibilizazio eta zabalpen” betebeharrak. Hala ere, bereziki azpimarragarria da, diagnostiko eta ekintza plan honi dagokionez, 7. Artikulua zehazten duen “Ikerketa eta estatistikarako” betebeharra.

TÍTULO I

Actuación de los poderes públicos

CAPÍTULO I

Criterios y líneas generales de actuación de los poderes públicos y órgano de participación ciudadana

Artículo 4. Deber de protección.

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, desarrollarán todas las medidas necesarias para reconocer, garantizar, proteger y promover la igualdad de trato y no discriminación por razón de orientación e identidad sexual, expresión de género o características sexuales de las personas LGTBI y sus familias.

Artículo 5. Reconocimiento y apoyo institucional.

1. Los poderes públicos adoptarán las medidas necesarias para poner en valor la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y la diversidad familiar, contribuyendo a la visibilidad, la igualdad, la no discriminación y la participación, en todos los ámbitos de la vida, de las personas LGTBI.

2. Los poderes públicos fomentarán el reconocimiento institucional y la participación en los actos conmemorativos de la lucha por la igualdad real y efectiva de las personas LGTBI.



Artículo 6. *Divulgación y sensibilización.*

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, promoverán campañas de sensibilización, divulgación y fomento del respeto a la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y a la diversidad familiar, dirigidas a toda la sociedad, y en especial en los ámbitos donde la discriminación afecte a sectores de población más vulnerables.

Artículo 7. *Estadísticas y estudios.*

1. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, impulsarán la realización de estudios y encuestas sobre la situación de las personas LGTBI que permitan profundizar en la naturaleza y el alcance de las principales situaciones de discriminación que les afectan y registrar su evolución a lo largo del tiempo.

2. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, incluirán en la elaboración de sus estudios, memorias o estadísticas, cuando se refieran o afecten a aspectos relacionados con la discriminación de las personas LGTBI, los indicadores y procedimientos que permitan conocer las causas, extensión, evolución, naturaleza y efectos de dicha discriminación. Estos datos se desglosarán en función de las causas discriminatorias previstas en esta ley siempre que sea posible.

- Bestetik, 2023ko Legea oinarri gisa hartzeko beste arrazoi bat, legea beraren gaurkotasuna da, batik bat, trans despatologizazio eta terminologiari dagokionez.

“En lo relativo a las personas transexuales (en adelante, personas trans), la Clasificación Internacional de Enfermedades de la Organización Mundial de la Salud, en su undécima revisión (CIE-11), de 2018, eliminó la transexualidad del capítulo sobre trastornos mentales y del comportamiento, trasladándola al de «condiciones relativas a la salud sexual», lo que supone el aval a la despatologización de las personas trans”.

- Eta azkenik, 3. artikuluan oinarritzko kontzeptuak birdefinitzeko egindako lana ere kontuan izango dugu, zeinak gida gisa balioko digun terminologia eta eragite arloak definitzeko.



g) Intersexualidad: La condición de aquellas personas nacidas con unas características biológicas, anatómicas o fisiológicas, una anatomía sexual, unos órganos reproductivos o un patrón cromosómico que no se corresponden con las nociones socialmente establecidas de los cuerpos masculinos o femeninos.

h) Orientación sexual: Atracción física, sexual o afectiva hacia una persona.

La orientación sexual puede ser heterosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas de distinto sexo; homosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas del mismo sexo; o bisexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva hacia personas de diferentes sexos, no necesariamente al mismo tiempo, de la misma manera, en el mismo grado ni con la misma intensidad.

Las personas homosexuales pueden ser gais, si son hombres, o lesbianas, si son mujeres.

i) Identidad sexual: Vivencia interna e individual del sexo tal y como cada persona la siente y autodefine, pudiendo o no corresponder con el sexo asignado al nacer. j) Expresión de género: Manifestación que cada persona hace de su identidad sexual.

k) Persona trans: Persona cuya identidad sexual no se corresponde con el sexo asignado al nacer.

l) Familia LGTBI: Aquella en la que uno o más de sus integrantes son personas LGTBI, englobándose dentro de ellas las familias homoparentales, es decir, las compuestas por personas lesbianas, gais o bisexuales con descendientes menores de edad que se encuentran de forma estable bajo guardia, tutela o patria potestad, o con descendientes mayores de edad con discapacidad a cargo.

m) LGTBIfobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas LGTBI por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.



n) Homofobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas homosexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

ñ) Bifobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas bisexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

o) Transfobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas trans por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

p) Inducción, orden o instrucción de discriminar: Es discriminatoria toda inducción, orden o instrucción de discriminar por cualquiera de las causas establecidas en esta ley. La inducción ha de ser concreta, directa y eficaz para hacer surgir en otra persona una actuación discriminatoria.

Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua.

- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Horrela definitzen da legearen helburua:

Transexualei, transexual izateagatik edo izate horrek sortzen dien egoera pertsonal zein sozialagatik, legedian oraindik ere eragiten zaizkien bereizketa mota guztiak gainditzera bidean laguntzea eta aurreratzea, eta, horrekin batera, Konstituzioan aipatzen diren zenbait printzipioen arau-garapena hobetzea, alegia, diskriminaziorik eza, nortasunaren garapen askea eta pertsonaren, familiaren eta taldearen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa jasotzen dituzten printzipioen arau-garapena hobetzea, horretarako aplikatzekoa den araudia gizarteak bizi duen garai historiakoari egokituz

- 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.

Dekretuak azalpen atal bat, sei artikulua, azken xedapen bat eta bi eranskin ditu. Lehenengo artikuluan adierazten da, hain zuzen ere, dekretuaren xedea dela transexualek, Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen kasuan, jatorrizko



herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte, eduki dezaketen dokumentazio administratiboa arautzea.

Bigarren artikuluan, dekretuak bere aplikazio-eremua finkatzen du eta legean araututako dokumentazio administratiboa zer pertsonak eskuratu ahal izango duen zehazten du.

Bestetik, hirugarren artikuluan, dokumentazio administratiboa jaulkitzeko organo-eskuduna zein den zehazten da. Laugarren artikuluan, jaulkitzeko prozedura azaltzen da, eta azkenik, bosgarren artikuluan, aurretik aipatutako prozedura ebaztearekin lotutako alderdiak arautzen dira.

Seigarren artikuluan, dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa jaulkitzearen ondorio orokorrak eta ondorio partikularrak finkatzen dira, zehazki, osasun eta hezkuntza arlokoak.

Azkenik, bi eranskinetan, dokumentazio administratiboa eskatzeko eredia eta jaulki beharreko txartelaren eredia finkatzen dira, hurrenez hurren.

- 9/2019 LEGEA, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa.

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeko 3. artikulua aldatzea, horrela bilatuz transexualitatea despatologizatzea.

Transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona bati jaiotzean jarri zitzaion sexua ez datorren bat sentitzen duen eta berea dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik.

Ondorioz, lege honen ondorioetarako, pertsona transexualaren kontsiderazioa arautuko du identitate sexualaren autodeterminazio librerako eskubideak. Eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, beti arauak jarriz eta aplikatuz ariketa libre eta oso horren alde. Pertsona

transexualek baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe.”

- 4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, eta horrekiko aldaketa esanguratsuenak ondorengoak dira, besteak beste, trans izendapena onartuko da; Ez-bitar terminologia txertatu da; Mutilazio genitala ekidingo da; Judizializazio prozesuen aurretik gizarte zerbitzuen eskuhartzea lehenetsiko da; Trans memoria eguna arautuko da.

Pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, helburua izanik, batetik, pertsona transek beren izateagatik edo egoera pertsonal zein sozialagatik jasaten dituzten diskriminazio guztiak gainditzeko bidean lagundu eta aurrera egitea, eta, bestetik, kolektibo horren berezitasunei erantzutea.

Lege honek, guztira, zortzi kapitulu, berrogeita bi artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluaren arauaren xedea, aplikazio-eremua eta xede dituen kolektiboen definizioa biltzen dira. Hala, aurreko arauak ez bezala, berariaz jasotzen dira, pertsona transexualak ez ezik, pertsona transgeneroak eta intersexualak ere.

II. kapituluaren trans arloko politika publiko baterako oinarriak ezartzen dira, eta honako hauek arautzen dira: euskal administrazio publikoek pertsona transekiko izan beharreko tratamendua, eta Euskal Administrazioaren langileei prestakuntza emateko betebeharra; trans mugimenduaren memoria aintzatestea eta balioestea; transfobiari aurre egiteko garatu eta aplikatu beharreko neurriak, eta pertsona transen administrazio-agiriei dagokienez hartu beharreko neurriak. Aipatzekoa da, duen garrantziagatik, kapitulu honetan orobat eskatzen zaiela euskal administrazio publikoei berma diezaietela

pertsona adingabe transexualei beren garapen integrala eta nortasunaren garapen askea bultzatzeko beharrezkoak diren babesa eta arreta.

III. kapituluaren idazketak garapen luzea egiten du bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arretari dagokionez, bai pertsona transek jasotzeko eskubidea duten osasun-prestazioei dagokienez; Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua erregelamendu-mailatik lege-mailara pasatzen da; oinarriak ezartzen ditu pertsona transen arretarako osasun-gidaren lege-garapena egiteko; osasun-prestazioen aurreikuspen zabala jasotzen du eta pertsona transen eskubideak kodetzen ditu. Aldi berean, artikulua berri batean jasotzen du berariaz debekatzen direla genitalen aldaketa eta mutilazioa, bai eta pertsona intersexualengan kaltegarriak diren beste prozedura mediko batzuk ere.

IV. kapituluan, bestalde, familia-eremuko neurriak aipatzen dira, eta familia-aniztasunaren babesa, sexu-identitateagatiko diskriminaziorik eza eta eremu horretan indarkeriaren aurrean laguntzeko eta babesteko neurriak sustatzen dira.

V. kapituluan, lan-arloko diskriminazioaren aurkako neurrietan sakontzen da; besteak beste, ekintza positiboko neurriak hartzea eta ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatzea enpleguaren arloan, eta trans errealitateak sartzea enpresen gizarte-erantzukizunaren eremuan. Orobat aurreikusten da lan-arloko diskriminazioaren aurkako plan bat garatzea erregelamendu bidez, eta laneko jazarpenaren aurkako mekanismoak ezartzea. Bestalde,

VI. kapituluan, hezkuntza-sisteman trans errealitatea artatzeko neurriak arautzen dira, barne hartuta eskola-eremuan trans errealitatea artatzeko protokolo bat, trans errealitateak hezkuntza-planetan eta -edukietan sartzea, eta prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak garatzea. 44. zk. 2024ko otsailaren 29a, osteguna EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2024/1068 (21/3)


VII. kapituluan kulturaren, aisialdiaren eta kirolaren arloko neurriak arautzen dira, kultura inklusiboa sustatzearen ikuspegitik eta kirolean,

aisialdian eta denbora librean ekitatez eta sexu-diskriminaziorik gabe parte hartzearen ikuspegitik.

VIII. kapitulua segurtasunaren, justiziaren eta larrialdien arloko neurriei buruzkoa da. Besteak beste, alde batetik ezartzen da ezen, Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, zaindu egin behar duela gorroto-delituaren biktima diren pertsona transei arretoa emateko beharrezko neurriak hartzen direla Ertzaintzan eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoetan, eta, bestetik, beharrezko neurriak hartu behar direla pertsona transen tratua eta egonaldi egokiak bermatzeko poliziaren egoitzetan, epaitegietan eta askatasunaz gabetzeko beste eremu batzuetan.

Azkenik, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen sartu dira. Xedapen gehigarriei dagokienez, lehenengo bietan ezartzen da, batetik, zer epe ematen zaion Gobernuari osasun-gida eratu behar duen batzordea abian jartzeko, eta, bestetik, noiz jarriko diren indarrean trans arloan lehen mailako arretoa emateko zerbitzuak eta Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua. Azken xedapen gehigarria arau honen ebaluazioari eta berrikuspenari buruzkoa da, eta eskumen hori gizarte-politiken arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari dagokiola ezartzen da. Azkenik, azken xedapenetan gaitasuna ematen zaio Jaurlaritzari legea garatzeko, eta ezartzen da araua indarrean jarriko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.





3. JASOTZERO ERREMINTAK: METODOLOGIA



Diagnostikoa egiteko erabili den metodologia **kualitatiboa** izan da. Kontuan izanik, herri mailako irakurketa orokor bat garatu nahi izan dela, eta horretarako, herriaren ezagutza, esperientzia, irakurketa partekatuak, aurrekariak... ezinbesteko elementuak direla idiosinkrasia eta aldaketak hautematerako momentuan.

Horregatik, ezinbestekoa izan da eragile eta norbanakoen **bizipen eta sentsazioak** jasotzea. Beraz, metodologia kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoi nagusia horixe izan da, alegia, sakoneko informaziora iritsi eta parte-hartzaileentzat garrantzitsua eta adierazgarria den kontakizuna jasotzen saiatzea.

Hau guztia jasotzeko, hiru ikerketa metodo erabili ditugu. Lehena, **taldeko lan-saioak**, batik bat, eragile edota talde baten izenean ari ziren horien bizipenak jasotzeko modua zelako. Bigarrenik, **elkarrizketa sakonak** ere gauzatu ditugu, banaka zein bi edo hiru kiderekin, hausnarketa bizipen eta esperientzietatik jarduteko aukera emateko. Azkenik, herrian garrantzia berezia duten espazioen **behaketa** ere egin dugu, kasuen analisirako.

3.1 Parte hartzaileen profilak

Beheko taulan diagnosian parte-hartu duten pertsonen profilak zehaztu dira. Profilak definitzerako orduan hainbat aldagai hartu dira kontuan: adina, norbanakoaren auto-definizioa eta bizilekua.

3.1.1 Norbanakoak

Herriko LGTBIQ+ kolektiboaren parte diren 10 norbanako elkarrizketatu ditugu. Parte-hartzaile bakoitza eta bere testigantzak gakoak dira Aretxabaletaren erradiografia ahalik eta errealena izateko. Norbanako batzuekin elkarrizketa bat baino gehiago burutu ditugu informazioaren jarraipen eta kontrastea egin ahal izateko.

3.1.2 Eragileak

Herriko eragileekin lan-saio eta elkarrizketak egin dira. 3 eragile ezberdinekin bildu gara, bakoitzak bere arlotik edo begiradatik kontatzeko duena jasotzeko asmoz. Eragile batzuekin behin baino gehiago bildu gara informazioan sakondu eta kontrastea egiteko.



3.1.3 Udala

Udalari dagokionez, 3 talde/korporazio elkarrizketatu ditugu. Udalarekin duten lotura leku ezberdinetatik izatea bilatu dugu, langile edo teknikari moduan batzuk, eta udaleko politikari moduan, besteak.

3.1.4 Elkarrizketatuen nomenklatura eta ezaugarriak

NOMENKLATURA	ADINA	AUTO-DEFINIZIOA	BIZILEKUA HERRIAN/KANPOAN
N001	Gaztea	Ez-bitarra/emakumea pansexual, polimaitakorra, aromantikoa.	Herrian
N002	Gaztea	Bollera	Herrian
N003	Gaztea	Marika	Herrian / Kanpoan
N004	Gaztea	Bollera	Herrian / Kanpoan
N005	Gaztea	Gay / marika	Herrian
N006	Ertaina	Gay / marika	Herrian
N007	Ertaina	Homosexuala	Kanpoan
N008	Gaztea	Queer	Herrian
N009	Gaztea	Gay	Kanpoan
N010	Ertaina	Emakume bisexuala	Kanpoan
E001	Gaztea	LGTBIQ+ eragilea	
E002	Gazteak eta ertainekoak	adin	LGTBIQ+ eragilea
E003	Gaztea	Kirol eragilea	
U001	Ertaina	Udala	
U002	Ertaina	Udala	

U003	Gaztea	Berdintasun saila	
------	--------	-------------------	--


*Adin tarteak:

Gaztea: 15-30

Ertaina: 30tik aurrera

Azkenik, **analisi unitate** bezala, herri mailan edonolako balioen transmisioa egiteko gaitasuna duten espazio, norbanako, eragile, jarduera eta dinamikak aztertzen saiatu gara, bereziki, eta, **adierazle** bezala, balio berdinzaleen transmisioa eta inpaktua zein den neurtu nahian.





4. ONDORIOAK



ARETXABALETAKO LGTBIQ+ ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN DISEINUA

4.1 Nolako da Aretxabaleta? Idiosinkrasia eta ezaugarriak

[Iz] **Idiosinkrasia:** *Gizaki edo gizatalde baten aiurri berezi eta bereizgarria.*

Aretxabaletak bere arau ez-idatzi propioak ditu, eta horien arabera antolatzen da bizi, desira eta parte hartzea. Horietako batzuk, LGTBIQ+ komunitatea seguru eta duintasunez bizi dadin oso lagungarriak dira (politizazio handia, kidetasunaren harrotasuna edo konpromiso kolektiboa), baina beste batzuek, ordea, bizi zailtzen diete sexualitate disidentea dutenei (zuzentasun politikoa, zigor sozialak edo segregazioa). Nolako da Aretxabaleta LGTBIQ+ pertsonentzat?

Oro har honelako ezaugarriekin definitu da.

- Tradizionala
- Futbolzalea
- Familia nuklearrekoa
- Euskalduna
- Aktiboa
- Konprometitua
- Kirolzalea
- Saretua

Atal honetan, erregimen heterosexualak Aretxabaletako idiosinkrasiaren barruan nola jarduten duen azalduko dugu.

4.1.1 Tradizioa eta familia

[iz.] Familia. *Ahaidetasun hurbilak lotzen dituen kideen multzoa, berez etxe berean bizi direnak; bereziki gurasoek eta seme-alabek osatzen dutena.*

[iz.] Biologia. *Izaki bizidunak aztertzen dituen zientzia. Biologiak izaki bizidunen egitura makro eta mikroskopikoa, fisiologia, ugalketa, sailkapena, jatorria, eboluzioa, elkarrekiko eta ingurunearekiko harremanak, etab. aztertzen ditu.*

Diagnostikoan parte hartu duten ia pertsona guztiek herri tradizional gisa definitzen dute Aretxabaleta. Familia nuklearrak elementu traktore gisa funtzionatzen du, idiosinkrasia azaltzen duen elementu nagusietakoa bihurtuz. Zentzu honetan, familia muga nagusi moduan identifikatu da armairuari dagokionean, bi norabidetan gainera: ateratzeko eta itzultzeko.



Norbere desira, erotika, identitate edo bizi-eredua modu askean bizi eta esplizitaterako orduan, familia izaten da LGTBIQ+ kolektiboko kideei, lehenik, datorkien mamua. Zalantza sortzen du honek, galdetuta ea Aretxabaletako familiek, orokorrean, onartu eta errespetatuko luketen kolektiboko familia-kiderik, gehienek baietz aipatzen dute, herriak baiezkoa erantzungo lukeela aho-betez. Hau, ordea, kontraesankorra izan daiteke, elkarrizketatu gehienek aipatzen dutelako familiaren zama, eta herrian familia ezberdinen izen eta izanak zenbateraino eragiten duten.

“Pues en mi caso, salir del armario fue muy complejo, pues para mi familia fue duro [...] he tenido que soportar comentarios”

“Gogoan dut, amak beldurra zuela jendeak zer esango zuen”

Honek, pentsatzera garamatza, esaten denaz gain, esaten ez dena eta ulertzera ematen denak ere berebiziko garrantzia duela. Prozesuan identifikatu dugun zerbait izan da, askotan, LGTBIQ+ kolektiboko kideek behin baino gehiagotan erabiltzen dutela haiei txikitatik nabari zitzaienaren aitzakia, eta ateratzeko beharrik ez dela egon. Estalki bat izan daiteke hau, zenbait kasuetan, deserosoak izan daitezken momentuei aurre ez egiteko helduleku ere bihurtzen delako askotan, baita norberaren familiaren kanporako justifikazio bat ere. Gainera, hurrengo atalean azalduko dugun moduan, zuzentasun politikoaren presioarekin ere zer ikusia du. Arazorik ez, baina norberak bere orientazioa eta identitatea modu diskretuan bizitzearen eskari sinboliko bat dago.

Kontrara, familiarekin hitz egiteko beharraz galdetuta, batzuek onartzen dute garrantzitsua izango litzakeela hitz egin eta esplizitatu ahal izatea, informaziotik harago, aitortzak, lasaitasunak eta babesak sortzen dituelako.

“Bai, gustauko jaten haien partetik esan izana, lasai”

“Nire lehengusua kolektibokoa da, nabaritzen zaio gainera, baina etxean ez dakite. Inork ez du horren inguruan hitz egiten eta horrek ez du laguntzen ”

Aurreratu bezala, askorentzat, familia ez da soilik muga zenbait gauza azalertzeko, baizik eta armairura buelta suposatzen die askori. Armairutik ez da behin ateratzen, etengabeko zerbait da kolektiboko kideentzat eta, hortaz, itzulerak ere espazio eta une ezberdinetan ematen dira. Askorentzat, familia, haien desira ezkutatu, edo bizitza pribatuaz hitz egin ez, arropa aldatu, luma ezkutatu, bizi-ereduak difuminatu eta araura itzultzea da.



Lesbiana eta bolleraren kasuan, gainera, ez onartzeak aurretik aipaturiko fase edo momentuko zerbait izatearen imajinarioan ezkututzen dira, egia edo benetakoa izango ez balitz bezala, pasa egingo dena.

“Ez didate esaten, baina amatasunez hitz egiten ari direnean «zu noizko?» galdetzen didate. Ez dute soilik amatasunari egiten erreferentzia, lesbiana izateari ere. Noiz pasatuko zaizu fase hori? pentsatzen ari dira»”

Familiek, beraz, ardura handia dute honetan, ulertuta, gainera, zein diren momentu horretako botere posizioak eta zaugarritasun egoerak. Edonork, nahi duen une eta moduan armairutik atera ahal izateko baldintzak sortzea heteroarauen daudenen ardura da, eta kasu honetan zehazki, familiarena. Beraz, familiek hausnartu beharko lukete zein diren sortu dituzten baldintzak, eta zein diren garatu beharreko segurtasun eta erosotasun elementuak haien inguruko armairu ez izateko

4.1.2 Polarizazioa eta segregazioa

Aretxabaletan bi mundu antagoniko bizi dira elkarren ondoan, ikusgarria eta erdigunean dagoena, eta ikusezina eta herriko periferian dagoen beste bat. Beraz, ohikoa da herriko plazan familia heteroak bere seme-alabekin poteatzen ikustea; eta, aldi berean LGTBIQ+ pankarta ikusgarri bat plazaren erdian egotea. Ohikoa da ere, herriko jaietan LGTBIQ+ ekintzaren bat antolatzea eta herriko periferietako tabernaren batean bestelako LGTBIQ+ komunitatea erregetoia dantzatzen egotea. Guztiz normala da futbola esparru arrotza izatea LGTBIQ+ komunitatearentzat eta, aldi berean, herrian LGTBIQ+ ikusgarritasunaren aldeko futbol partidak jokatzea.

Polarizazio horren ondorioz, segregazio handia sortzen da komunitate desberdinen artean; eta, komunitate horiek, nahiz eta normalean harreman gatazkatsuak izan ez, bereizita bizi dira, eta haien arteko elkarrizketa oso ahula da.

Hau da, modu kontrajarrian eraikiko eta garatuko da kolektibotasuna (askotan kontrajarriak ez izan arren) eta beti egongo da komunitate bat hegemonia lortuko duena. Adibidez, herritar politizatuak eta ez politizatuak daude; edo, kirolariak eta ez kirolariak. Goiko atalean azaltzen genituen ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, Aretxabaletarrak kirolariak dira, beraz, kirola egiten ez duten horiek periferian, subalternitatean eta normatik kanpo kokatuko ditugu, eta euren Aretxabaletar identitatea arriskuan egongo da.



Polarizazioak hermetikoagoak eta biolentoagoak egiten ditu identitateak. Gizonak, gizonagoak dira eta, emakumeak, emakumeagoak, adibidez. Gauza bera gertatzen da beste hainbat aldagairekin: euskaldunak/ ez euskaldunak, Atxabaltarra/Are-koa, heteroak/ez heteroak.

Ez-heteroa izatea identitate ahula da, periferikoa eta arraroa.

“Hemen dena oso tradizionala da. Emakumeak amak dira, herriko plazan poteatzen dute, kirola egiten dute, euskaldunak dira, estetikoki ondo jazten dira eta beti pote berdina hartzen dute. Gu gara las raritas”

Beraz, heteroak dira erdigunea dutenak ordena sinboliko normalaren ondorioz, eta LGTBIQ+ pertsonak dira, beraz, erdigunea konkistatu behar dutenak, edota, periferiara mugitu behar direnak. Horren ondorioz, bi LGTBIQ+ komunitate desberdin identifikatu ditzakegu. Erdiguneko espazio heterosexualizatzailea disputatzen dutenak, batetik, eta periferian bere identitatea bizitzen dutenak, bestetik. Polarizazioa, orduan, LGTBIQ+ komunitate bateratu bat sortzeko oztopoa handia bilakatzen da.

Gainera, hegemonikoak diren ezaugarriek eragin zentrifugo bat dute besteengan, hau da, elementu normatibizatzaile bezala funtzionatzen dute eta, horren ondorioz, LGTBIQ+ komunitateak presioaz eta nekez bizi du bere ikusgarritasuna, armarizazio prozesuak indartzeko arriskuak areagotzen baitira.

“Badakit begiratzen nautela eta esaten dutela, «hori lesbiana da», que guay todo, baina esaten dute. Koadrilara ailegatzen zara eta beti galdetzen dizute zure ligeengatik como si fueses la diversión”

Instituzio normatibizatzaileen artean, familiaz gain, badago bat testigantza guztietan errepikatzen dena: kuadrilla. Hau da, txikitatik inposatutako familia. Kuadrillak, espazio banatzaile moduan funtzionatzen du, mutil eta nesken kuadrillak banatuta baitaude normalean, eta genero eta gorputz normatiboak diziplinatzeko ezinbesteko instituzioak bilakatzen dira.

“Batuetan arropa aldatzen dut kuadrillakoekin geratzen naizenean. Nekagarria da beti berdina entzuten egotea. Txano hau, adibidez, jartzen dudak bakoitzean zerbait esaten didate, qué menudas pintas. Orduan indartsu ez banago, ez dut jartzen, edo ez noa kuadrillakoekin”

LGTBIQ+ komunitateko kideek aparteko kuadrillak sortu dituzte, arnagune bezala funtzionatzen dutenak, eta lagungarriak izaten direnak segregazio normatibo horretatik



ihes egiteko, ez soilik sexu disidente direnentzako, “herriko arraroak” diren guztientzako ere.

“Nosotres nos juntamos en una cuadrilla porque nos hicieron bullying en clase y desde ahí empezamos a hacer cosas LGTBIQ+. Da igual si lo somos o no, en este grupo nos sentimos agusto y cuando estamos sentadas en la terraza de la plaza nos miran porque hablamos y reímos alto, pero nos da igual porque no nos hace ya daño”

4.1.3 Futbola

[Iz]*Hamaikana jokalariko bi talderen artean, batez ere oinaz jotzen den baloi batez jokatzen den kirola.*

Futbola da herriaren nolakotasunen inguruan galdetzerakoan gehien errepikatu den elementua, eta antzeman dugunez, hau ez da gai berria, korapilo ezberdinak sortu izan dira honen baitan. Hortaz, egiten diren irakurketen dimentsioen ardura hartuta, argi utzi nahi dugu ez dugula erruduntasun eta zigorren baitan jardun nahi, baizik eta aitortza eta arduren baitan.

LGTBIQ+ komunitateak arrotz sentitzen du mutilen futbola, eta mutilena zehaztea garrantzitsua da emakumezkoen futbola beste modu batean ulertzen delako. Askotan, futbol mundua unibertsalizatzeko joera dago, eta botereguneak eta hegemonia, askotan, mutilen futboleant ematen den arren, garrantzitsua da prisma ezberdinetatik begiratzea. Lesbiana eta bolleren kasuan, futbola leku eroso eta segurua izan da, eta ez hori bakarrik, baizik eta eredu eta erreferenteak topatzeko tokia ere. Batzuek aipatu digute, haientzat lehen lesbiana ikusgarriak herriko futbol jokalaria edota beste herrietako ekipoetako jokalaria izan zirela, eta hau azpimarragarria egiten zaigu.

Hortaz, mutilen futbola da gatazka sortu dezakeena. Esan moduan, arrotz sentitzen du LGTBIQ+ kolektiboak espazio eta mundu hau, ondorengo arrazoiengatik batez ere.

Jarrerak. Asko dira futbolaren baitan eman daitezkeen jokabideak, eta argi utzi nahi dugu mutilen futbola ez dela beti jarrera desagokien sinonimo, balio feministen transmisore ere izan daiteke. Kontua da, beste toki batzuetan bezala, Aretxabaletan ere mutilen futboleant ematen diren jarrerak maskulinitate eredu hegemonikoen goratze eta adierazpen nahiko muturrekoak direla, hau da, botere bat eduki dezaketenen boteretzeko espazio bihurtzen da askotan, eta horrekiko mugarik egon ezean, berrelkatze bat ematen da subjektu horien artean, inpunitate sentsazio ahalbidetuz. Segur aski, bertan parte hartzen duten gazte, heldu zein entrenatzaile batzuen aldetik



ardura egongo da zenbait jarrera moztu eta kudeatzeko, baina sentsazioa da horrekiko ardura nahikorik ez dagoela, batez ere, indartu eta materializatu egiten direlako modu argiagoan, beharbada, beste espazio batzuetan puntualagoak izan daitezkeen praktikak.

Ikusgarritasuna eta erreferentziak. Oso gutxi dira, baita Aretxabaletan ere, gizonen futbolaren mundutik LGTBIQ+ kolektibo eta bizitzekiko eman diren posizionamendu eta adierazpenak, eta ziur aski, bertako kide eta parte-hartzaileen gehiengoak babestu egingo du LGTBIQ+ kolektiboa, baina horren adierazlerik egon ezean eta historikoki lgtbifobikoa izan den mundu bat izanik, zentzuzkoa izan daiteke futbolean jokatu, gozatu, ikusi eta entrenatzen duten LGTBIQ+ norbanakoen aldetik hori bera esplizitatzeko beldurra izatea. Azken honek, ikusgarritasun falta eta erreferenterik ez izatera garamatza, hala adierazi dutenez, oso zaila delako identifikatzea mutilen futbolean ikusgarria edo gaztea izan den inor. Honek, isiltasuna ekarri du, eta isiltasunak, LGTBIQ+ ikusgarritasuna eta futbola oraindik ere ezkutuko zerbait izatea.

“Marikak badaude, nik ezagutzen ditut, baina ez dute esaten. Niri ere futbola gustatzen zait baina dagoen giroarekin paso”

Azpimarratu eta positiboki baloratu izan da *AtxabaltaHarro!*-rekin elkarlanean egindako LGTBIQ+ bandera zuten galtzerdien egitasmoa, eta hori ere aipatu beharra dago, baina sentsazioa izan daiteke oso ekimen puntuala dela, eta ikusgarritasunerako neurri gehiago ipini behar direla martxan, bestelako esku-hartze mota batzuekin batera.

Segurtasuna. Mutilen futbola ez da espazio seguru moduan ulertzen oro har, ez armairutik ateratzeko, ez erasoei dagokienean. Hau, batez ere, zelaietako jokalariei zein ikusleen jarrera batzuetan oinarritzen da, futbolzaleak diren herritar batzuek azaldu digutelako ohikoa izan daitekeela, edo ez liekeela harrituko, behintzat, partida batean umore eta irain lgtbifobiokoak ematea, zer esanik ez jakingo balitz jokalariei bat kolektibokoa dela modu irekian.

Lehentasunak. Futbolean jokatu duten elkarrizketatu batzuek aipatu dute mutilen futbolarekiko lehentasuna handiagoa dela herri zein arduradunen aldetik, eta horrek, sustatu egin dezake konfiantza falta gauza batzuk aldatzeari begira.

Gainera, futbol pribatuaren zentralitateak beste kirol batzuen eskaintza publikoa ordeztu behar izatea eragiten du, futbola esparru pribatu batera baztertuz eta beste eskaintza guztiak ikusezin bilakatuz.



Aurreko guztia kontuan izanik, badira Aretxabaletan futboletik modu positiboan azpimarratu daitezken gauzak eta potentzialitateak eta, horrenbestez, horiei erreparatzea ere ezinbestekoa da aukera eta indarguneak identifikatzeko.

Aitortza. Erreferentzia egin diogun futbol munduan parte hartzen duten (modu ezberdinetan bada ere) elkarrizketatuek aitortza egiten diote LGTBIQ+ kolektiboaren lanari eta bideari. Gainera, aldarrikapenez gain, batzuek onartu eta aitortu egiten dute haiek mahaigainean jarritako egoera batzuk, zein identifikatu diren jarrera, hutsune eta ahulgune batzuk ematen direla, hau da, ez dago irakurketaren ukatze erabateko bat eta, hori, lehen urratsa da zenbait gauza aldatzeari begira.

Kontzientzia. Mutilen futbolaren parte den sektore batek gaiarekiko jakintza eta kontzientzia du, ulertu egiten du borroka, eta alde agertzen da, gainera, LGTBIQ+ aldarriekiko.

Irekitasuna eta alde zurretiko jarrera. Zenbait gauza ikusi, onartu eta aldatzearekiko jarrera proaktiboa da batzuen aldetik, eta bide batzuk arakatzeko prestutasuna ere adierazi da.

Babesa. Futbolari dagokion espazioetan eraso lgtbiqfobikorik emango balitz, erantzuna eta babesa handia izango litzateke, horrekiko konpromisoa nahiko argia da, eta futbol komunitateak erantzun egingo luke. Zalantza sortu dezakeena, agian, eraso horien dimentsioa da, hau da, batzuk ematen dira dagoneko irain edo iseka moduan, beraz, zein da baldintza erantzuteko edo ez?

4.1.4 Euskararen garrantzia

[Iz.]Euskara: Euskal Herriko hizkuntza.

Herriko idiosinkrasia gurutzatzen duen elementu nagusienetakoa euskalduntasuna da, hizkuntzarekin harremana duena gehienetan, baina ez beti. Honen inguruan galdetu diegu elkarrizketatu batzuei, gai konplexua delako, eta irakurketa ezberdinak izan ditzakeelako aldi berean, baina nahiko baldintzatzailea izanik, garrantzitsua iruditu zaigu honen baitako hausnarketa batzuk mahaigainertzea.

Hizkuntzari dagokionean, belaunaldien arteko aldea nabaritu dugu. 25 urtetik gorakoek, LGTBIQ+ mundua gaztelania edo ingelesarekin lotzen dute euskararekin baino lehenago, batez ere, erreferentziak, izan kultural edo pertsonalak, nekez topatu dituztelako euskaraz, eta iturriak, ondorioz, beste hizkuntza batean izan direlako. 25 urtetik beharakoei LGTBIQ+ mundua zein hizkuntzarekin lotuko luketen galdetuta,

askok aipatu dute euskara gaztelaniaren aurretik. Bi arrazoi nagusi identifikatu ditugu, batetik, euskarazko erreferentzia gehiago eta, beraz, iruditegi kolektiboa euskaratik irudikatze sarrbide batzuk sortu direla eta, bestetik, LGTBIQ+ borrokak erdigune handiago hartu duen heinean, politizazio horrek bestelako borroka, problematik eta zapalkuntzekiko lotura, aitortza eta gurutzaketa eragin duela, hizkuntzaren afera kasu honetan.

Hizkuntzarekiko begiradak, euskalduntasunean du eragin zuzena, baina hau garatu aurretik, bi aipamen egin nahiko genituzke. Lehenik, euskalduntasunaren inguruan galdetu dugunean, ez dugu zehaztu ez definitu hori zer den, existitzen den iruditegi kolektiboaren baitako ondorioak jaso ahal izateko; bigarrenik, ez dugu definituko euskalduntasuna zer den, gauza asko izan daitezkeelako eta, horrela, honekiko hausnarketa ezberdinak gertatu ahal izateko.

Hau honela, herriko LGTBIQ+ mugimendu antolatua euskalduntasunarekin lotzen da gehien bat, kasu indibidualetatik harago, baina aldi berean, LGTBIQ+ kolektiboak herriko nortasuna markatzen duen euskalduntasuna problematizatu egiten du, hau da, hertsu moduan ulertzen du euskalduntasuna. Honek ez du esan nahi hizkuntza problematizatzen denik, euskararekiko lotura, apustua eta posizioa nahiko konprometitua delako mugimendu antolaturen aldetik, eta zentrala da gainera praktika eta aldarrikapenetan, baina, beharbada, euskalduntasun ezberdinez ari gara. Hau honela, euskalduntasun ezberdinek izan behar dute tokia, edo euskalduntasuna da propio eraldatu behar dena?

Herriko LGTBIQ+ norbanako gazteenek aipatu dute euskarak sarrbidea ematen duela espazio seguru eta erosoagoetara, eta hori, elementu berria da historikoki primitiboa, mugatua eta ez-moderno moduan ulertua izan den hizkuntza batetik. Aldi berean, euskalduntasuna herria zeharkatzen duen nolakotasuna izanik, baita LGTBIQ+ komunitatean ere (nahiz eta modu ezberdinetan batzuetan,) erdigune eta herriko boteregune batzuetara sarrbidea ere ireki egiten da eta, agian, LGTBIQ+ ikuspegitik euskara eta euskalduntasunetik erdiguneetarako sarrbiderik ez dutenekiko zergatien hausnarketa ere ahalbidetu behar da. Herriko zein LGTBIQ+ norbanakoek ez dute sarrbiderik gurera hizkuntzarekiko sarrbidea ere mugatuagoa delako? Nola jantzi behar da euskalduntasuna baztertzaila izan ez dadin? Euskalduntasuna zuria bada, zein zubi eraiki behar dira eta zein harreman sendotu?

Azkenik, herriak lotura eta aitortza bat antzeman dezake LGTBIQ+ komunitate eta borrokarekiko euskaratik egiten delako askotan, baina aldi berean, herriaren parte batek ez du euskalduntasunaren iruditegi kolektiboarekin bat egin dezakeen elementu



moduan ulertzen, eta zenbait kasuetan, euskalduntasunaren zatitzaile moduan ere interpretatua izan du kolektiboa.

4.1.5 Sexilioa

[iz.] Sexilio. LGBT+ pertsonak beren jaioterritik alde egin behar izatea, haien sexualitatearen edo genero-identitatearen ondorioz jazarrita edo onartu gabe sentitzeagatik.

Uste baino gehiago dira herritik LGTBIQ+ kolektiboko kideak izategatik beste toki batzuetara bizitzera joan diren bizilagunak, eta ez lehen soilik, baita oraindik ere. Sexilioa, normalean, ez da lehen arrazoi moduan planteatzen edo azaltzen askotan, hau da, beti dago zilegi eta onargarria izango den pisuzko beste arrazoi handiago bat tarteko, lana eta ikasketak normalean, baina gehienek identifikatzen dute LGTBIQ+ izatearekin gurutzatua dagoela, hau da, ateratzeko behar handi bat zegoela Aretxabaletan garatzeko ezintasunaren aurrean. Herriak nola interpretatu zituen ateraldi horiek? Jakina zen heteroarauak eragindako ateraldiak izan zirela? Zein ardura hartu dira horien aurrean? Eta hori baino garrantzitsuagoa, zein baldintza sortu behar dira itzulera batzuetarako eta erreparaziorako?

“Aretxabaletak eztauko lgtb pertsonak garatzeko espazio, komunitate eta baliabidiak. Nire kasuen atxabaltatik urteteko bihera ikusten nauen.”

“Si, mi amiga por ejemplo se ha ido a XX, por qué ella sentía que en Aretxabaleta estaba atrapada.”

“Aretxabaleta bezalako herri batean jaiotako askok kanpora joan behar izan dutela bertan jasotako jazarpen, kritika edo aurreiritzien ondorioz besteak beste. Ez da gune eroso eta segurua izan askoren garapenerako”

“Lagun askok alde egin zuten armaixo barruen ondiokan, eta batzuk ez dabe esan ezebez etxien ondiokan”

Sexilioa ez da soilik errealitate bat, batzuen kasuan ere, saiakera eta pentsamendu errepikakor bat da, bereziki lesbianen kasuan. Testigantza batzuetan, Aretxabaletan bizitzeko gogoia eta konpromisoa azaleratzen da indartsu, baina nekea eta sufrimenduarekin nahasten da. Horren ondorioz, borondatearen aurkako sexilioaren aukera behin baino gehiagotan agertzen da, porrotaren eta etsipenaren adierazle gisa.



“Hemen bizi nahi dut, baina ia ez naiz gaztea eta lasai bizi nahi dut. Neketsua da egunero borrokan ibiltzea, kanpoan ligatu behar, herriko lesbiana izatea, ... ez dut joan nahi baina badakit ere aukera hori dagoela”

Sexilioak ere erreferente falta eragin du. Agian, ez da soilik ez dagonik, baizik eta direnak ateratzera behartuak izan direla. Erreferenteez hitz egiten dugunean, beraz, ezin dugu pisua jarri soilik norbanako batzuen indar eta ausardian, baizik eta nola jardun duen komunitate batek, herri bizigarri bat eraiki, eta erreferenteak kanpora joan ez daitezen.

4.1.6 Zuzentasun politikoa

[iz] Zuzentasun: *Egiaren arabera epaitzera eta aritzera, eta bakoitzari dagokiona ematera bultzatzen duen bertutea.*

[iz] Politika: *Egiteko bat, batez ere egiteko publiko bat, aurrera eramateko era.*

Aretxabaletaren idiosinkrasia definitzen duen ezaugarri bat badago, hori zuzentasun politikoa da. Eraso lgtbiqfobikorik emango balitz, erantzuna eta babes handia egongo dela uste dute gehienek. Horregatik, orokorrean, nahiko segurua da Aretxabaleta LGTBIQ+ komunitatearentzat, edo, behintzat, segurtasunaren pertzepzio soziala zein autopertzepzioa altua da.

“Egiaxa da nire kasuan ez nazela insegurua sentitzen momentu batean bez, nire ingurua nahiko indartuta eta armatuta sentitzen dot eta edozein jarreran aurrien erantzuteko. Gañera, eragilietatik nahiko lanketa eta ahalduntze prozesuak bultzatzen ditzugu, bisibildadea ematen...”

Baina, zergatik da segurtasunaren autopertzepzioa handia? Aretxabaleta mobilizazio, konpromiso eta artikulazio handiko herria delako, eta horren arabera jarduten du gizarte-borroka gehienetan. Herri aktiboa eta konpromiso handikoa den heinean, a priori, pertsonen bizitza hobetuko duen edozein borrokaren alde dagoen gizartea izango da. Beraz, LGTBIQ+ borroka ondo ikusia dago eta jendea bere alde agertzen da. Horren adibidea da UDA kirol taldeak LGTBIfobiaren kontra antolatu zuen partida. Bertan, jokalaria guztiek bere galtzerdietan ostadarra zeramaten.

“Hemen denak gara pertsonak eta denak ondo bizi behar gara, horregatik oso ondo dago LGTBIQ+ pertsona izatea, eta beraiek laguntzeko gaude”.



“Denok gara pertsonak” horren atzean, LGTBIQ+ pertsonak pairatzen dituzten diskriminazio berezituak ukatzen dira, eta heterosexualitatea erregimen politiko bezala definitzeko arazoa sortzen da. Zuzentasun politikoa biolentzia sinbolikoaren parte bat bezala ulertu behar da, horregatik, mekanismo sotilago batzuen bitartez azaleratzen da. Hori bai, mekanismo horiek ez dira kaltegabekoak, inpaktu zuzena eta zeharkako dute jendearengan, biolentzia ere badirelako. Iseka, zigor soziala, zurrumurruek eta abar dira mekanismo horiek, eta oso presente daude Aretxabaletako LGTBIQ+ komunitatearen egunerokoan.

Zuzentasun politikoa bereziki udaleko talde teknikoan ikusi dugu, LGTBIQ+ komunitatearen alde lan egiteko prestutasun osoa izan arren, zailtasun handia dute komunitate honi modu positiboan eragiten dioten politika publikoak diseinatzeko eta abian jartzeko. Egoera hau iraultzea da dugun erronketako bat.

Gainera, Aretxabaletan bi LGTBIQ+ kolektibo daude, herrian ezagunak dira eta haien aldarrikapenak une garrantzitsuetan egotea normaltasun osoz bizitzen da. Hori bai, esan dugun bezala, onarpen hori azalekoa da, politikoki zuzena delako. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. LGTBIQ+ borroka ez dago agenda sozialean eta egotekotan "gure borrokaren ondorioz da". Beraz, jarrera positiboa bai, baina presentzia eta normalizazioa ez.

“A la gente le parece bien que hagamos cosas, pero que no llamemos mucho la atención, y, sobre todo, que no les digamos qué falta o qué tienen que revisarse. Si hacemos eso ya les empieza a sentar mal y ahí nuestra presencia ya no les parece tan bien”.

Hori bai, zuzentasun politikoa ez da beti itogarria, bere alde onak ere badituela esan genezake. Eraso fisikoen aurrean, esaterako, arriskua murriztu egiten da, eraso egitekotan, gaizki ikusiak izango direlako, edota herriak erantzun irmoa eta bateratua emango duelako. Horregatik, diziplinazio heterosexuala erruarekin eta lotsarekin lotura handiagoa duten beste kontrol-mekanismo batzuen bitartez egiten da.

“Azkenean gaizki sentitzen zara, ze jende guztiak badaki bilerara zoazenean gaia aterako duzula, baina es que guk ez badugu gaia eramaten orduan inork ez du kontuan izaten. Oso nekagarria eta bakarrik sentitzen zara”.

Dena den, indarkeria zuzena ahulagoa izateak ez du esan nahi indarkeriarik ez dagoenik. Izan ere, testigantza guztietan indarkeria sinbolikoa oso presente egon da. *Zigorrak eta mugak* atalean gehiago garatuko dugu, baina ohikoak dira estetikari eta

arropari buruzko erreferentziak, familia-eredu tradizionalaren mitifikazioa eta umorea edo iseka

“Nik normalean ez dut esaten ez naizela monogama. Lesbina, janzkera arraroa eta gainera poliamorosa. Barre egingo dute nitaz. Nahiago dut ekiditea”

LGTBIQ+ herritarren artean sentazioa da Aretxabaleta politikoki zuzena dela, baina arau heterosexual sendoa eta sustraitua du. Horren ondorio da LGTBIfobia eta diskriminazioa, oraindik ere, jasan egiten delako egunerokotasunean, eta zigor sozialak guztiz normalizatuta daude.

4.2 Zigorak eta mugak

[iz.] Zigor. *Huts edo hobenen bat egin duenari ezarritako kaltea edo zentzagarria.*

[iz.] Muga. *Zerbait amaitzen den tokia edo unea.*

Norberak bere sexualitate, erotika, harreman, lotura, identitate eta bizitzak askatasunez bizi ahal izatea ez da soilik erabaki indibiduala, gainerakoen eragin eta arduretatik ere badu. Askotan, LGTBQ+ kolektibokoa izatea ausardiarekin, beldur ezarekin, tentu gogor bat izatearekin, autoestimuaekin edota izaerarekin lotzen da, armairuan egon edo bestelakoak esplizitatzea norberaren segurtasunetik soilik determinatuko balute bezala. Honek, askotan, zama gehigarri bat ezartzen dio ibilbideari, bakoitzari datozkion beldurren kudeaketaz gain, erruduntasun eta txikitasun sentazioa ere areagotzen duelako, aurretik ez esanagatik, berandu kontatu izanagatik, batzuei soilik esan izanagatik, batzuetan gauza bat janzteagatik baina beste batzuk ezkutatzegatik, isildu izanagatik, armairura bueltatu izanagatik edota antzeztu izanagatik. LGTBQ+ errealitateak, ordea, ez dira heroitasun eta balentria kontua, ezta gogoangarriak izateko casting bat ere, hau, bizitza guztiak bizigarri eta askatasunean bizi ahal izatea da.

Horregatik diogu ardura kolektibotik duela batez ere bizitza bizigarriak bermatzea, gehienetan, hau ez gertatzearen arrazoia ezartzen diren zigor eta mugak direlako. Zigorra aipatzen dugunean, beharbada, era edo testuinguru zehatz batzuekin lotzen ditugu soilik, baina forma askotarikoak dira zigor eta muga horiek. Zein dira, beraz, LGTBQ+ pertsonen bizitzak baldintzatzen dituzten faktoreak?

Atal hauek sakondu aurretik, garrantzitsua egiten zaigu azpimarratzea LGTBQ+ bizitzak indarkeria baina gauza askoz gehiago direla. Askotan, errealitate hauek sufrimenduaekin, minarekin, gordintasunarekin harramantzen dira soilik eta, horrek,

agentzia kendu eta zaugarri plazaratzen ditu kolektiboko kideak sistematikoki. Gainera, amaieran azaltzen den moduan, LGTBIQ+ pertsona askok presenteago dute plazera, aisia eta kolektibotasuna indarkeria baino eta, horrek, LGTBIQ+ bizitzak beste toki batetik begiratu eta amesteko aukera ematen digu. Beraz, jarraian agertzen diren irakurketa eta ondorioak zakarragoak diren arren, hortik haratago begiratzeko apustua egin behar dugu.

4.2.1 Indarkeria

[iz.] Indarkeria: *Bortxaz edo erasoz norbaiti kalte fisikoa edo psikologikoa eragiteko ekintza edo portaera.*

Ezberdinak dira indarkeriak hartzen dituen formak, eta gauza asko izan daitezke, aldi berean, indarkeria, baina horren inguruko eztabaidan sartu baino, jasotako testigantzetatik ateratako indarkeria zehatzak garatuko ditugu, fisikoak, zuzenak eta sinbolikoak.

Irain eta bullyingak presentzia nabarmena hartzen du mutil gay, marika, ez-bitar, trans femenino eta trabestietan. Askoren kasuan, eskola garaia etapa gogorra izan da, bertan, erro homofobo eta transfoboak zituzten jazarpenak errepikatu direlako behin eta berriro, askotan, gainera, bestelako aitzakia ez-sistemikoetan oinarrituta, hau da, arrazoi eta motibazio lgtbiqfobikoak desitxuratu eta estaliz.

“Sentía malestar porque no entraba en las dinámicas de la gente, ni de las chicas ni de los chicos. Me obligaban a hacerlo. Fue una mierda de época. Desde que tengo uso de razón, me hacían bullying, día tras día era sufrimiento, sentirme humillado e insultado. En D.B.H. y en batxi siguió el bullying, no conseguía entender cómo salir de ahí. Los adultos que estaban alrededor me intentaban reencajar, es decir, si él no encaja vamos a moldearlo para que encaje. En ese momento no se sabía del concepto de lgtbifobia. No tuve sostén. Miraba alrededor y era como estar sólo en una habitación, no encontraba una mirada cómplice, no había referentes.”

Irainei dagokienean, eskolaz gain, espazio publikoan ere eman dira, izan ezaguna zen jendearen aldetik edo, besterik gabe, ezezagunen aldetik.

“Karnabal batzutan, gabien ya etxera nindoiera bakarrik, ume batzuk maricon deitzen hasi zien nindoiera mozorro femenino batekin jantzitxa. Hasieran enotzien kasurik in baina ezien ixiltzen eta maricon deitzen jarraitxu zauien.



Orduen amorruekin les mande a la mierda, baina barre inzauien eta fan inzien eta ni amorratuta etxera." Danel

Testigantza hauen kasu gehienetan, inpunitate sentsazioa da nagusi, ingurukoek ezer ez egin izanarena eta helduek gaiari heldu ez izanarena hain zuzen ere. Honek, konfidantza falta eta frustrazioa eragiten du, eta lehen eta bigarren mailako herritarrak sortu. Indarkeriak suposatzen duenaz gain, horrekiko erantzun ezak, subjektu horien parte-hartze sozial eta publikoa baldintzatzen du, indarkeria horrekiko erantzun antolaturik ezean, erantzukizunak ere kolektibizatu egiten direlako, eta indarkeria horien erantzuleak unibertsalizatu, espazio eta bizitza publikoa espazio ez-seguru eta deserosoak bilakatuz. Horrenbestez, presentzia eta parte-hartze publikoa, horrek sortzen duen kapital soziala kontuan izanik, heteroarautua da oraindik, eta ez hori bakarrik, baizik eta inpunitate sentsazioaren imajinarioa ordezkatzeko ere oraindik ere.

Indarkeria fisikoaren kasuan, zorionez, presentzia txikiagoa izan du elkarrizketatuen ibilbideetan, baina ez du esan nahi eman ez denik. Kasu honetan, aurreko paragrafoetako indarkerietan ez bezala, ez da ezaguna zen jendearen partetik eman, baina herrian bertan gertatu dira, batez ere, aisialdiarekin lotutako testuinguruetan.

"Juerga baten lagunekin ninguen atxabaltako taberna baten eta tabernia oso beteta euen. Ezin gitzen mugiruz, etzauen lekurik eta aurrien naukon mutil bat bultzaten hasi zan. Asko molestetan zebilen eta esan notzan "mesedez, aldozu ez bultzatu?" Eta super txarto begiratu zuzten eta zeoze esan zuzten enotzala ulertu eta berriz esan notzan "ez bultzatu zabitzela molestetan eta ezta lekurik" eta ezta kit zeba puñetazo bat emun zuzten, baina apartau initzen. Nire lagunek eta inguruko mutil batzuk reaktionau inzauien eta niri laguntzera etorri zien. Ostien lagun batek kontau zuzten tipuak esan zauela "que se cree que por maricon no se le puede hacer nada"

Kasu honetan, erantzun kolektiboago bat eman zitzaion jazoerari eta, elkarrizketatu askok aipatu dute, eraso lgtbiqfobiko fisikoen aurrean herriak baietz, erantzungo lukeela. Honek, beraz, beste hausnarketa edo galdera bat uzten digu mahai gainean, zenbat indarkeria behar da zerbait mugitu dadin?

Lesbiana, bollera eta zis emakume bisexualen kasuan, indarkeriak beste forma bat hartzen du, haien hautu, desira eta erabakiak etengabeen zalantzan jarriz. Momentuko zerbait dela, fase bat, gaztetasunarekin loturiko errebeldia efimero bat, esperientzia bat, puntuala, proiektiorik gabekoa, abentura, antza, beste ezer probatu ez izanaren edo probatu behar izanaren justifikazioa, aldatu daitekeena, desafio bat, informala eta



amaiera duena. Gizon zis batekin soilik imajinatu dezakete bizitza batzuek, heldua eta serioa izatea nahi bada behitzat, eta asko dira horren bueltan jardungo ez duten desira eta praktiken zalantzan jartze sistematikoak, mezua argia da: nola gertatu daiteke bizitza (zis)gizonik gabe? Edo beste modu batean esanda, zalantzan jartzen du (zis)gizonen monopolioa desiran, harremanetan eta lehentasunetan.

Osasuna ere bada lesbiana, bollera eta zis emakume bisexual eta trans pertsonenganako indarkeria gertatzen den espazio bat. Lehenengo kasuan, heterosexualitatearen aurreuposizio bat ematen delako, ginekologian batez ere, eta zalantzan jartzea eta ezjakintasuna dira nagusi. Trans pertsonen dagokienean, errealitatearen ezagutza oraindik eta txikiago izaten da, eta desira, erotika zein identitatek patologizatu egiten dira askotan.

Azkenik, elkarrizketetan ere atera da emakume transek lana aurkitzeko dituzten zailtasunak eta, horrek, beste indarkeria bat gehitzen die bizitza batzuei, prekaritatearena hain zuzen ere.

4.2.2 Umorea eta iseka

[iz.] Umore. *Gertaera, egoera, pertsona, etab.en alde komiko eta xelebreaz jabetzeko edo agerian uzteko gaitasuna; horretarako erabiltzen diren baliabideen multzoa.*

[iz.] Iseka. *Norbait edo zerbait barregarri edo irrigarri uzteko erabiltzen diren mesprezuzko keinu edo hitzak*

Hau ere indarkeriaren barruan kokatzen dugun arren, uste dugu aparteko atala merezi duela, batez ere, aurretik egindako beste diagnostiko batzuekin alderatuz, asko errepikatu den elementu bat izan delako. Elkarrizketatuei galdetu diegunean zein den norberaren desira edo identitatea modu librean azaltzeko muga edo beldur nagusia, indarkeria esplizitua baino, broma eta umorearen bitartez ematen diren zaugarritasun eta irrigarri uzteko saiakerak izan da erantzun nagusia.

Lesbiana, bollera edo zis emakume bisexualen kasuan, umore edo burla hau, aurretik aipaturiko lehentasunak zalantzan jartzearen bidetik dator, agerian utzi nahian, haien egote edo erabaki hori mutil baten plazeretik pasa ez diren praktikak izateagatik izan dela, baina egingo balute, iritziz aldatuko luketela.

Gay, marika, trabesti eta emakume transen kasuan, umore edo burlek penetrazioarekin dute batez ere harremana: makurtzearekin, dutxekin, azkar maitemintzearekin, atzean jartzeagatik, ondotik pasatzegatik edo, besterik gabe, begiratzeagatik.



Azkenik, kolektiboko kideengan umorearen bitartez gehien zigortzen dena estetika da, izan jantziei lotuta edota lumarekin, hau da, adierazpide ez heteroarautuekin.

4.2.3 Estetika

[iz.] Estetika. Itxura edo estilo dotoreari buruzkoa, bereziki objektu, espazio edo pertsona baten antolaketan.

Estetika aipatu dugula, hau izan da nagusitu den elementu mugatzaileetako bat, ez burla edo isekaren ikuspegitik soilik, baizik eta herriaren janzkera eta adierazpideei dagokienean. Banaketa bitarrek, hau da, gizon eta emakume kategoria zurrunez, determinatu egiten dute zein izango den gorputz bakoitzaren adierazpena, edo beste modu batean esanda, norberak zein arropa jantzi nahiko duen determinatzen du. Hau ez da soilik Aretxabaletari dagokion zerbait, toki guztietan ematen da, baina kasu honetan, janzkeren genero marka eta zurruntasuna oso handia dela azpimarratu dute gehienek. Honek, bestelako espresio asko mugatzen ditu, itogarria izan daitekeelako batzuentzat. Gainera, honekiko ardura LGTBIQ+ pertsonengan erori ohi da soilik, horien askatasun indibiduala interpelatuz, hau da, berak nahi badu egin dezala, baina ez badu nahi, bere ardura da. Kontuan izan behar dugu, ordea, zerbaiten parte izateko edo apurtzeko sarbidea ez dela erabaki pertsonaletik igarotzen eskusiboki, inguruko arautze mailak baldintzatzen du, araua definituago dagoenean, bertatik ateratzea ere zailagoa da.

Aurreko ideiarekin lotuta, parte-hartzaile askok aipatu dute, beharbada, zigorra edo muga, gaur egun, ez dagoela horren lotuta duela urte batzuk bezala desirari edo lehentasun erotikoari, baizik eta horiek materializatzen diren uneko disidentzia maila eta desnormatibizazioari. Ez da norekin oheratzen zaren, baizik eta nola munduratzen zaren.

“Plumofobia handia dago herri hontan”

Gainera, Aretxabaleta aisialdirako eta festarako herri aktiboa izanik, horietako batzuetan ematen diren janzkerak ere hartu behar dira kontuan gorputzen banaketa bitarrari dagokionean, baita horrek eragin dezakeenaren inguruan.

“San Migeletan adibidez, euskal herriko janzkera tradizionala janzteak buruhaustea edota autoestimua arazoak eragin ditzake kolektibo honetako pertsonengan. Janzkera binarismo batean jausten baita, emakumeak gonarekin eta gizonezkoak frakekin. Bere burua talde hauetan identifikatzen ez duten pertsonendako eraso bat izan daiteke janzkera tradizional hau.”



4.2.4 Zurrumurruak

[iz.] Zurrumurru. Ahoz aho dabilen albiste edo berri ziurtatugabea.

Pentsatuko dena, uste dutena, zabalduko dena, iritsiko dena, iritsiko ez dena, aldatuko direla, ezberdin begiratuko dutela, asmatuko direnak, barre egingo zaiona, lotsatuko direla, haserretuko dela...

Hauek dira, beste askoren artean, herriko LGTBIQ+ pertsona ezberdinak gurutzatzen dituzten galdera eta beldurrak. Askok nabarmendu dute elkarrizketatuek herrian zurrumurruak duten presentzia, eta horiek baldintzatzen dutela hein handi batean nola sozializatzen den bakoitza. Hau ez da soilik LGTBIQ+ errealitateekin gertatzen, beste kasu askotan ere ematen da, baina norbere erabakiak askatasunez bizitzeko harresi handia da zurrumurruena.

“Muga nagusiak aurreiritziak izan direla esango nuke, kritikatu edo baztertuta izateko beldurra”

Gainera, zurrumurruak, seinalamendua dakarte askotan, eta LGTBIQ+ borrokaren baitan mugitzen eta antolatzen direnenekiko markaketa handia da. Honek, lehen atalean azalduko zuzentasun politikoarekin du lotura, esan bezala, herriaren gehiengoak ondo ikusten duelako, eta babesten du gainera, norberak nahi duenarekin oheratzeko eskubidea duela, baina espazio publikora eta moralera ekartzen denean, agerikoagoak izaten dira desadostasunak.

Zurrumurruak eragiten duten beste ondorio bat tabua da, eta jasotako informazioaren aburuz, handiagoa da tabua mutilen artean, zaila da ikusgarriak diren gay edo marikak topatzea.

“Bestalde, trans eta marikendako atxabalta ez dala herri bizigarri bat esango nauke. Oso gutxi die (esku batekin kontau neike) modu ireki baten etiketa horrekin identifiketan dienak.” Maider

Honek, kontrara, ez du esan nahi ez dagoenik, baizik eta armairua eta beldurra handia dela oraindik ere eta, hori, herriaren ardura da.

“Gero ezkutuan badauz de todo lo que te imaginas, futbolistak, hasta entrenadores, eta ez bat ez bi” Mikel

Tabuak estigma sortzen du gainera, eta horren adibide da 80 eta 90. hamarkadan HIESAren baitan sortutakoa.



“Nos ponian a los marikones y a los yonkis al mismo nivel por el V.I.H.” Mikel

Azpimarratzea dagokigu, estigmak bazterketa dakarrela ia kasu guztietan, eta ez dagoela estigma gehiago edo gutxiago merezi duenik.

4.2.5 Bakardadea

[iz.] Bakartasun. *Bakarrik dagoen edo egon ohi den pertsonaren egoera.*

Bakarrik geratzea, sarerik ez izatea, zainduko zaituenik eta zainduko duzunik ez izatea da LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen beste beldur zein zigorra. Alde batetik, bikoterik, familiarik edo seme-alabarik izateko aukera eta sarbide falta azpimarratu dute batzuek, batez ere, helduagoak diren norbanakoak. Gainera, gizartea familia nuklearraren baitan antolatzen den heinean, kolektibokoa izatea, helduaroa eta bakardadea, gurutzatu egiten dira kasu askotan.

“Familixa normal bat eukitzen aukera kendu dozte, eta batzutan sentitzen naiz bakardadean horregatik” Mikel

Horrez gain, bakardadea ez da ematen soilik familia bat sortzeko zailtasunengatik edo espazio batzuetara sarbidea ez izateagatik, baizik eta bazterketa eta indarkeria kasu ezberdinengatik kanpora joan, egoera batzuen aurrean distantzia hartu, eta harremanak mozteagatik..

“Bakarrik geratzeakiko beldurra eta familiar batzuek lgtb pertsonen aurka daukien pentsamenduak. Eztot inor euki nire burua ulertzen laguntzeko eta nire sexualitatia onartzen laguntzeko. Ez naukon herra mintarik nire ansiedadia gestionetako.

4.3 Aktibotasuna

Dokumentu osoan zehar Aretxabaleta oso herri aktiboa dela errepikatu izan dugu eta, horrek, eragina ere badu LGTBIQ+ komunitatean. Alde batetik, espazio publikoaren eta aisialdiaren erabilera baldintzatzen duten arau heterosexualek eragiten diotelako; eta bestetik, ikusgai izaten eta gizarte-ehunean parte hartzeko sarbidea ematen dielako. Atal honetan, horrek guztiak nola funtzionatzen duen aztertuko dugu.

4.3.1 LGTBIQ+ borroka bizirik

Herri aktibo bat lagungarria da LGTBIQ+ bizitzen aldeko borroka sustatzeko. Ez da kasualitatea herrian bi LGTBIQ+ kolektibo egotea, aktibotasun horren adierazlea da, hain zuzen. Hau honela, bestelako plazer ereduak landu eta agenda politiko propio bat sortzeko baldintzak badaudela esan genezake.

“A nosotras nos gusta que en Aretxabaleta seamos dos colectivos, porque así la gente tiene dónde elegir. Somos diferentes pero existimos. Si prefieres un tipo de activismo vas donde unes y sino donde les otros. Eso es muy bueno. En el resto de los pueblos o no hay colectivos o solo hay uno”

Aktibismo osasuntsu eta anitza izateak LGTBIQ+ kolektiboa *looby* gisa eratzea ahalbidetzen du, herriarekiko zein udalarekiko. Hau da, duen indarraren ondorioz, herriko politika publikoetan eragiteko eta presioa egiteko gaitasun handia du, eta hori areagotu egin da azken urteotan. Are gehiago, gobernu-aldaketarekin hobetu egin da.

Ildo horretan, kolektiboen eta udalaren arteko harremanak egonkorrak dira, baina ez dira arinak eta erregularrak. Horregatik, bien arteko lankidetzak eta elkarrizketa bideak aztertzea falta da oraindik. Gainera, udal ordezkariak, LGTBIQ+ borrokaren aldeko jarrera eta konpromiso argia erakusten duten arren, ez dute LGTBIQ+ errealitatea menderatzen eta formazioa behar dutela nabaria da.

4.3.2 Erreferente beharra/zama

Edozein komunitaterentzat erreferenteak izatea ezinbestekoa da. Erreferenteak izatea norberak duen lekua izateko arrazoia duela gogorarazteko modu bat da. LGTBIQ+ pertsonen kasuan, historikoki izan dituzten erreferenteak negatiboak izan dira (Orientazioagatik armairuan bizi direnak, herritik joan diren kideak, edo txikitan bullyingen biktima izan direnak, esaterako). Horregatik, ezinbestekoa da LGTBIQ+ pertsonak erreferente positiboak izan ditzaten sustatzea. LGTBIQ+ borrokari, memoria-lanei eta teknologia berriei esker, gero eta ohikoagoa da erreferente positiboak izatea.

Hala ere, elkarrizketatuei LGTBQ+ erreferentean galdetu diegunean, ia gehienak, herritik kanpo bilatu dituztela adierazi dute. Kasu askotan, sareetatik ezagutu dituzte, lurralde-errealitate desberdinetan bizi dira, edo ez dira gertukoak. Aldiz, herriak izan ditzakeen erreferenteei buruz galdetu dugunean, gehienetan, ez dira gai izan identifikatzeko, edo zuzenean izan ez dituztela azpimarratu dute.

Hau kontuan izanik, Aretxabaletako LGTBIQ+ komunitatearen barruan erreferenteak diren pertsona batzuk identifikatu ditugu. Gaienera, haiek horren jakitun dira. Erreferentzialtasun hori bi norabidetan ematen da. Lehenik, pertsona horiek Aretxabaletatik kanpo duten profil publikoagatik, nolabaiteko ospea lortu dutelako dira erreferente; eta, bigarrenik, LGTBIQ+ borrokaren alde herrian duten aktibismoa dela eta.



Lehenengo kasuan, estutasun eta zama bezala bizi dute; gainera, iseka eta zurrumurruek pairatu dituzte horregatik.

Bigarren kasuan, erantzukizun politikotik bizi da, eta haien erreferentzialtasunak Aretxabaletan hobeto bizitzeko beste pertsona batzuentzat baliogarria izan daitekeela uste dute. Hori bai, batzuetan nekagarria izaten da bidea, eta bakardadearen sentsazioa agertzen da.

“Kontziente naiz herriko bollera ikusgarrienetakoa naizela. Nik ez nuen beste inor izan erreferente. Gazteentzat ona da baina batzuetan nekatzen naiz bakarra izateaz”

4.3.3 Aliantzak eta harremanak

Sareak eta aliantzak ezinbestekoak dira edozein komunitate indartsua izan dadin. Txosten osoan esan dugun bezala, Aretxabaletak LGTBIQ+ mugimendu indartsua eta artikulatua du, eta kolektiboen artean elkar zaindu eta laguntzeko joera dago. Mugimendua gehio hedatzea, armairuan bizi diren LGTBIQ+ pertsonengana ailegatzea, eta bi kolektiboen artean elkarrizketa arinagoa izatea da sare eta aliantza horiek indartsuagoak izateko aukera emango diguna.

Indar eta gihar politikoak eragiteko gaitasuna handitzen du; eta, hori, herriko beste gizarte-eragile batzuekin eta udalarekin izan ditzaketen aliantzetan ikusten da. Zentzu horretan, udalarekin dagoen harremana desorekatua da; baina, aldi berean, konfiantza eraikitzen hasia da. Horregatik, beharrezkoa da elkarrizketa eta koordinazio puntualerako espazio batetik harago joatea eta agenda propio bat sortzea, LGTBIQ+ pertsonen bizitzak hobetuko dituzten neurriekin. Talde politiko konprometitu bat eta talde tekniko formatu bat dira agenda hori sortu eta garatu ahal izateko gakoak.

Herriko beste erakundeekin aliantza sendoak sortzeko ezinbestekoa da erakunde horiek LGTBIQ+ errealitatea ikusarazteko izan dezaketen zeregin kohesionatzaileaz jabetzea, eta LGTBIQ+ kolektiboekin batera lan egitea. Ildo horretan, identifikatu da zenbait erakunde maskulinitate toxikoaren aktibatzaile gisa funtzionatzen ari direla eta, horrek, eragin negatiboa duela disidentzia sexualen bizitzetan.

Hori dela eta, dagoeneko sortzen ari diren edo sortu daitezkeen aliantzetan, LGTBIQ+ mugimendua aktore bezala errekonozitu behar da, bere autonomia errespetatu eta elkarrekiko konfiantza sortu.



4.3.4 Aisialdiaren erabilera

Aretxabaleta herri aktibo eta dinamikoa dela atera da askotan, ekimen ezberdinen baitan antolatze joera handia da herritarren artean, eta parte-hartze hori aisialdiaren baitan ematen da nagusiki. Aisialdia egiteko moduak asko dira, indibidual zein kolektiboak izan daitezke, banaka eta taldeka, norbanako edo talde batek bilatu eta egiten du motibazio eta plazeraren baitan. Aretxabaletan, aisialdia nagusiki bi eremu nagusiren baitan antolatzen dela identifikatu dugu, tabernak eta kirola, baina nolakoak dira pisuzko antolamendu horiek LGTBIQ+ komunitatearentzat?

4.3.4.1 Tabernak

Tabernei dagokionean, nahiko markatua da horien arteko banaketa eta segregazioa, eta elkarrekintza txikia egoten da taberna horien arteko profilen artean. Bertan entzuten den musikak ere banatu egiten ditu kontsumitzaileak. Giro eta musika euskaldunagoa izan dezaketen tabernetan LGTBIQ+ pertsonak ikusgarriagoak izaten dira eta, batzuetan, techno musika entzuten den zenbait espazioetan ere. Honek ez du esan nahi beste espazioetan LGTBIQ+ pertsonak existitzen ez direnik, baizik eta ez direla horren ikusgarriak, edo ez dira ikusgarriak herriko profil euskaldunarentzat, bai, ordea, beste batzuentzat.

“Siempre nos ha gustado el reguetón y hemos ido a bares a bailarlo. En los bares más euskaldunes no nos sentimos cómodas, no nos aceptan. Vamos mucho a XXX (hiri bati egiten dio erreferentzia) porque allí podemos hacer y ser lo que nos dé la gana”

Honek, errealitatearen gaineko bi hausnarketa nagusi uzten dizkigula uste dugu, batetik, agian, euskalduntasunerako sarbidea nahiko zuria eta klase ertainekoa izan daitekeela, eta ez dela guztiz eroso eta askatzailea LGTBIQ+ komunitateko kide pobre, migratu eta arrazializatuentzat, eta bestetik, euskarak eta horrekin loturiko balio eta bizimodu konprometituek LGTBIQ+ pertsonen bizigarritasuna eta babesa sustatzeko joera eta konpromisoa areagotzen dituztela.

Egun seinalatuetan, tabernen baitan ematen den aisialdi motak presentzia handiago hartzen du espazio publikoan eta herritar gehiago ukitzen ditu, Andramaixak, karnabalak, San Migelak, Kintxuak edota Gabonak, besteak beste. Bertan, egunerokotasuneko aisialdian ematen diren jarrera batzuk dimentsionatu egiten dira, eta, batzuetan ez da zertan txarra izan hori, plazera eta pozaren adierazle izan daitekeelako, baina beste kasu batzuetan, deserosoak bihurtzen dira LGTBIQ+ kide



zein norma habitatzen ez duten gainerako herritarrentzako. Horren adibide dira Kintxuak, azken urteetan bilakaera ezberdina hartu baitute elkarrizketatu ezberdinen aburuz.

“Santa ageda egunetik karnabaletararte urte hortan 18 urte bete ditxuzten kintxak dantza itxen daue igandero herriko plazan herri danan aurrian. Ospakizun hau bere xarma galtzen fan da urtetik urtera jendia, gehixenbat gizonezkuak oso mozkor faten dielako eta dantza oso gaizki itxen dauielako danen aurrien, eta askoren jarrera hori txalotzia izen da, giro oso maskulinua sortuz. Bestalde, ekainian kintxo berdinek txopo bat igotzen daue herriko plazan san jua suan ostian. Txopuan puntan urtetik urtera bandera aldarrikatzaile ezberdinak jarri izen die, lgtbiq+ bandera azken urtietan. Azken bi honeik jartzeko mobidak egon izen die kintada ezberdinetan, batzuen partetik milaka oztopo jarri izen die eta. Akordio batera heltzeko gañera, askotan herriko kirol taldian bandera jartzia "proposatzen" saiatu izen die, zorionez arrakasta barik. Egixa da ospakizun hau gehixenbat urte horretan kitxuak dieneztat dala berezixa, baña oso esanguratsua da bertan pasetan dan dana.”

Azkenik, festaren baitako aisialdi eredu eroso eta seguruen inguruan galdetuta, txosna eremua aipatu dute gehienek, erasoen kontrako protokoloa artikulatua dagoelako.

4.3.4.2 Kirola

Aurretik aipatu moduan, kirolak presentzia handia du herrian, baina kirol guztiek ez dute ez protagonismo ez kapital sozial berdina ematen. Esan dugu herri nahiko polarizatua antzeman dugula, baita kirolean ere, kasu honetan, generoari dagokionean, edo hobeto esanda, generoaren arabera kirol horiek ematen duten kapital sozialari dagokienean. Futbola da kirol hegemonikoena, eta Aretxabaletaren idiosinkrasiaren parte nagusi bat da. Gizonen futbolik gabe ezin da ulertu herria, horregatik *Nolakoa da Aretxabaleta? Idiosinkrasia eta ezaugarriak* atalean, futbolaren instituzioaz luze aritu gara. Baina, badago oso garrantzitsua den beste kirol bat: mendia.

Kirol hori egiten dutenen profila askotarikoa da, baina forma ezberdina hartzen dute. Mendiari dagokionean, herri identitatea ematen dio horrek, euskalduintasunarekin gurutzatzen dena askotan, eta saritu egiten da herrian. Saria diogunean ez dugu esan nahi inork esplizituki saririk banatzen duenik, baizik eta estatusa ematen duela, **prestigioa**. Mendizalea izateak, kapital soziala ematen duen heinean, arauera sarbidea bermatzen du, baina ez edozein profilentzat, baizik eta mendiak sinbolikoki duen

adierazpidearen baitako profila dutenentzat, eta ez soilik iruditegian, baizik eta baldintza fisikoei dagokienean ere. Hau da, mendiak badu sinbolikoki adierazpen nahiko feminizatu eta maskulinizatu, irudikatu bestela mendira joaten diren pertsonen adierazpena, eta adierazpen sinboliko horiek, modu baten edo bestean badira, profil batzuen edo besteen sarbidea ahalbidetuko du, adierazpide normatiboagoa badute, errazago gehituko dira profil arautuak dinamika horretara, eta kontrakoa disidenteentzat. Gainera, sarbidea ez da soilik iruditegi horren baitakoa, fisikoa ere bada, baldintza fisikokoek baldintzatu egiten dutelako hori. Beraz, honekin ez dugu esan nahi mendira joatea gaizki dagoenik, ez mendira joan nahi duen profil orok mendira joan ezin duenik, baizik eta estatus soziala ematen duen praktika baterako sarbidea ezberdina den heinean, erraztu egiten dituela erdiguneak eta botereak batzuentzat, araua habitatzen dutenentzat batez ere, eta mugatu egiten dituela besteentzat.


Aurretik azaldu diren aisialdi eredu hegemonikoen erpin ezberdinak kontuan izanik, ondorioztatu dezakegu aisialdiaren eremua nahiko normatiboa dela oraindik ere eta, gainera, gizontasunak eragin ditzakeen gatazken erreproduzitzailerik eta sostengatzaile izan daitekeela. Aldi berean, aldaketarako potentzialitatea duten espazioak dira eta, beraz, modu kolektiboan pentsatu beharko da, ez soilik LGTBIQ+ komunitateak, zein beste norabide hartu behar duten espazio hauek bizigarri eta seguruak izateko herriko norbanako guztientzat, baita norma habitatzen dutenek zein konpromiso hartu beharko lituzketen aldaketa hauekiko.

4.3.5 Zilegitasuna eta erreakzionarismoa

[izond.] Zilegi. Legeak edo moralak eragozten edo galarazten ez duena.

[iz.] Erreakzio. Aurreko ekintza baten erantzun gisa eratutako ekintza.

Ematen ari den olatu erreakzionario eta antifeministak geroz eta tarte handiagoa hartzen du inguruko egunerokotasuneko diskurtsoetan. Alde batetik, modu sotilean ematen ari diren diskurtso, eztabaida edo argudioak antzematen ditugu, inkontzienteak izan daitezkeenak batzuetan, baina bulo eta zilegitasun-kentze saiakeretan oinarritzen direnak. Bestetik, LGTBIQ+ komunitate antolatuek identifikatzen du aurkakotasun jarrerak areagotu egin direla, eta zenbait kasuetan, oldarkorrak ere izan direla. Honek, heteroarauak dakarren indarkeria ezbaian jartzen dutenekiko higitzea dakar.



5. ARDURA ETA ERAGITEKO EREMUAK



ARETXABALETAKO LGTBIQ+ ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN DISEINUA

Aurrez aipatu dugun arren, garrantzitsua zaigu azpimarratzea LGTBIQ+ kolektiboaren bizi baldintza duinak bermatzea gehiago duela kolektibotik pertsonaletik baino. Heteroaraua ez habitatzea ausardia pertsonalarekin lotzen da soilik askotan, testuingurutik at dagoen bultzada moduan, hau da, zerbait sentitzen baduzu egin, eta ez baduzu egiten, zure ardura da. Hau, maltzurra izan daiteke askotan kolektiboko kideekiko, mugak jartzen dituzten elementuekiko ez delako ardurarik proiektatzen bai, ordea, armairuarekiko erruduntasunak eta zamak eta, honek, autopertzepzioan eta autoestimuan du eragin zuzena, nahikoa ez izatearena hain zuzen ere. Kontrara, testuinguruak eta bertan parte hartzen dutenek bilakatzen dute herri bat bizigarri eta, horrek, neutraltasunetik baino, ardura aktibo eta inplikaziotik behar du. Ikus dezagun, beraz, zein izan daitezkeen ardura eta begirada horiek.

Batetik, maskulinitatea eta futbola. Gauza ezberdinak izan daitezke, kirola ere izan daitekeelako espazio eroso bat LGTBIQ+ kideentzat, eta maskulinitatea diogunean, kontziente gara kolektibo eta borroka honen alde gizonak badirela herrian, baina Aretxabaletaren kasuan, lotura handia duten elementuak dira. Kirolak, eta batez ere futbolarak, pisu handia du maskulinitatearen eraikuntzan eta herrian ematen duen boterean. Bertan, ikasi, erreproduzitu eta elikatu egiten dira gauza asko, eta inpunitate sententzia indartzen du, hau da, gizonen munduarekin lotzen denez soilik, bertan gertatzen dena bertan geratzen denaren sententzia dago, paktu bat bailitzan. Egia da, eraso lgtbiqfobikoekiko ardura ere nahiko orokortua dela, parte-hartzaile eta kide gehienek zigortzen dutelako hori, eta emango balitz, horren kontrako erantzuna ere babestuko lukete gehienek. Kontua da, beharbada, bi begirada edo plano identifikatu ditugula bertan, plano estrukturala eta egunerokotasuneko plano. Adostasuna dago kirola eta futbolaren mundua lgtbifokioa dela oraindik, eta oso zaila dela armairutik ateratzea bertan. Aitortza bat ere badago LGTBIQ+ kolektiboarekiko, horren adierazle da AtxabaltaHarro!-rekin batera UDAk egin zuen galtzerdien ekimena. Kontrara, egunerokotasunean hau kokatzeko zailtasunak ere topatu ditugu bertan, hau da, maila estrukturalean kokatzeko arazorik ez, baina modu orokor eta unibertsalean ematen diren jarrera horiek herriko futboleant bertan ikusi eta identifikatzeko zailtasunak handiagoak izan dira. Modu ezberdinetan bada ere, maila estrukturalean ematen diren jarrera horiek lokalean ere ematen dira, eta horiek detektatu eta identifikatzea lehen urratsa da kudeaketa edo esku-hartze posibleak diseinatzeko. Hau honela, aukera moduan irudikatu behar dugu futbolarena, herrian eragin handia duen espazioa izanik, LGTBIQ+ errealitateekiko kontzientzia bat baduelako. Kontua da, botere nahiko handia izanik, nola eman urrats kualitatibo bat, eta ekimen puntualez gain, zein neurri hartu



behar diren bertan jarrera batzuk moztu, gauza batzuk aldatu eta herrian kontzientzia bat eragiteko.

Familia ere bada ardura kolektiboen beste elementu garrantzitsuenetako bat. Askok aipatu dute LGTBIQ+ bizitzetan lehenetariko mugak familiak izaten direla, eta soilik hasieran, baita armairura itzultzetako arrazoia ere. Kontua da, sexu-genero disidenteen mugatzaile moduan familiak irudikatzen ditugunean, oso jarrera zehatz, esplizitu, bortitz edo estereotipatuak etortzen zaizkigula burura, horiek direlako iruditegi kolektiboan existitzen direnak, eta Aretxabaletan familia asko ez dira horretan identifikatzen, hau da, ez dute haien burua mugatzaile moduan ikusten, iruditegian dauden egoera eta indarkeria esplizituagoen aurrean, beste toki baten kokatzen dituztelako haien buruak. Baina indarkeria eta muga ez da beti agerikoa izaten, eta forma sotil asko hartzen ditu maiz. Zuzentasun politikoarekin eta itxurarekin du lotura honek, nola aurre egin jakin ez, lotsa, esango dutena, itxura eta uste onak gurutzatu egiten dira askotan herrian, eta isiltasuna da nagusi familietan. Badago horren atzean askatasun faltsu baten aitzakia, inoiz kontrakorik esan izanaren argudioa han zuzen ere, baina ez-ikusiarera egitea, jakinda egoerarekiko botere posizioan daudela batzuek, eta beste batzuek asko eskertuko dutenaren jakitun, korapilo eta zama asko sortzen ditu gehienetan. Horregatik, isiltasuna ez da askatasunaren sinonimo, eta arauan daudenek, familiek kasu honetan, ardura zuzena dute hori hautsi, gauza batzuk esplizitatu, eta arnagune izateko.

Espazio publikoak berebiziko garrantzia hartzen du Aretxabaletan, kontuan hartu behar dugulako herri nahiko aktiboa dela, eta aisialdi eta festek hezurtzen dute ehun soziala, horrenbestez, botere zein eragin-gune garrantzitsua da herrian. Bertan ere, askatasun faltsu baten ideia nagusitzeko arriskua dago, edo hala uste du herritarren zati batek, kalea librea dela eta bakoitzak nahi duena egi dezakeela, baina kontrara, egiten ez duenak berak nahi ez duelako da. Baina gauzak ez dira testuingururik gabeak, eta kalean ere, botere dinamikak errepikatu egiten dira. Nor dago erdigunean? Nork egiten du soinu gehien? Nor da ikusgarriena? Nork hartzen du espazio gehien? Nor dago talde handietan eta nor txikietan? Nor dago egunean zehar eta nor ordu txikitari? Nor dago aisian eta nor zaintzen?


Gorputz ezberdinek esanahi ezberdinak dituzte, berezkoak ez diren arrazoi sistemikoengatik, noski. Honek esan nahi du espazio publikoan gorputza jartzen dugun momentutik sarbide bat edo beste dugula gauza ezberdinetara, eta ez hori bakarrik, esanahi bat dugula, guk nahi ala ez, modu batean irakurtzen gaituztela eta ideia batzuk helarazten ditugula. Aretxabaletan ere, esanahi zehatz bat duten gorputz batzuk

nagusitzen dira espazio publikoan eta, askotan, soinuaren monopolioa haiek dutenez eta espazio fisiko handia okupatzen dutenez, ez da guztiz eroso norma habitatzen ez dutenentzako. Honek ez du esan nahi automatikoki pertsona horiek lgtbiqfobikoak direnik, baizik eta haiek nahi ala ez, egungo gizarte-testuinguru batean bizi diren heinean, muga izan daitezkeela askotan, boterea, beldurra, handikeria, lehia, hoztasuna, apatia eta tentsioa eragiten dutelako batzuetan. Hortaz, espazio publikoaren okupatze eta erabilera berrantolatu duten elementuak txeratzea ezinbestekoa izango da LGTBIQ+ bizigarritasunaren ikuspegitik.

Aurreko ideari tiraka, LGTBIQ+ pertsonen bizigarritasuna hobetzeko alde batera utzi behar dugun beste ideia bat neutraltasunarena da, indarkeria, jazarpen, eskubide urraketa edo botere-harremanen aurrean gauza gutxi direlako neutralak. Guzti honek, posizionamenduetatik behar du, eta esan moduan, ez soilik LGTBIQ+ pertsonen posizionamendutik, baizik eta arauan daudenen aldetik ere. Kontzientzia ez nahikoa, aplikatu egin behar da eta gauza batzuetan lerratu. Posizionamendu argirik gabe, ezin da aurrera egin; isiltasunak edo "neutral" izateak, azken finean, indarkeria babesten duen estrategia bihurtzen delako.

Identifikatu dugu herri-kontzientzia bat existitzen dela, eta egoera gordin batean aurrean, erantzun eta artikulazioa nahiko handia izango litzatekeela. Beraz, pentsatu behar dugu zein den hutsunea kontzientziatik ekintzara igarotzeko, edo erronka moduan, zein praktika zehatzen bitartez materializatu behar den herri-kontzientzia.





6. HEMENDIK AURRERA ZER? LEHENTASUNEZKO NEURRIAK



ARETXABALETAKO LGTBIQ+ ERREALITATEAK
ETA NEURRIEN DISEINUA

Jarraian, aurreko atalean azaleratu diren hutsune, behar eta korapiloer aurre egiteko neurrien bilduma proposatzen da. Hauek, identifikatutako ardatz nagusien baitan antolatu dira.

Azkenik, adierazleak ere definitu dira, hau da, neurri horren jarraipena eta balorazioa egin ahal izateko neurgailu zehatzak.

1. IDIOSINKRASIA ETA EZAUGARRIAK

1.1. Tradizioa eta familia

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.1.a. Familia eredu anitzen ikusgarritasun kanpaina egin.			Sentsibilizazio kanpaina egin da bai/ez Parte hartu duten pertsona kopurua. Jaso duten herritar kopurua.
1.1.b. Herriko jai seinalatueta LGTBIQ+ ikuspegia izango duen eskaintza programatu.			Ekintza kopurua. Parte-hartzaile kopurua. Aurrekontua.
1.1.d. Jai seinalatueta ematen den genero-berreste bitarrarekin amaitzeko LGTBIQ+ elementuen txertatzea.			Elementu kopurua.
1.1.e. Egun seinalatueta LGTBI+ kolektiboren aldeko bereizgarri estetiko bat sortu espazio publikoan presentzia izan dezan eta herriko norbanakoek eraman dezaketena (Txapa, pegatinak...)			Bereizgarri kopurua. Bereizgarrien zabalpen maila. Jantzi duten herritar kopurua.

1.2. Polarizazioa eta segregazioa

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.2.a. LGTBIQ+ ekimen banatuz gain, herri guztia LGTBIQ+ bizitzen alde batu eta artikulatuko den herri ekimena antolatu, udal, herritar eta herri-eragileen inplikazioa bilatuko duena.			Ekimena egin da bai/ez. Bertaratu den jende kopurua. Antolatu duten agente kopurua.



1.3. Kirola eta futbola

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.3.a. Kirol herrikoi ekimenetan Emakume eta sexu/genero-disidenteentzako espazio ez mistoa sortu.			Ekimenaren antolakuntza Parte-hartzaile kopurua
1.3.b. Kirol txapelketa misto bat egin urtero kirol ezberdinetan talde mistoak sustatuz (pala, pilota, futbito, saskibaloia, herri kirolak...)			Ekimenaren antolakuntza Parte-hartzaile kopurua
1.3.d. Kirol Klubei zuzendutako sentsibilizazio eta formakuntza.			Formakuntzaren asebetetze maila Parte-hartzaile kopurua
1.3.e. Udal mailan kirola eta LGTBI+ ikuspegia txeratzeko aholkularitza programatu.			Aholkularitza kopurua
1.3.f. Erreferenteak diren kirolariek LGTBIfobiaren inguruko kontzientzia handitzeko solasaldiak antolatu.			Solasaldien antolakuntza Saio kopurua Parte-hartzaile kopurua
1.3.g. Kirolean ematen den LGTBIfobiaren aurkako eguna (Otsailak 19) ospatu.			Eguna ospatu da bai/ez Parte-hartzaile kopurua
1.3.h. UDArekin elkarlanean LGTBIQ+ ikusgarritasuna zabaltzeko kanpaina abiatu.			Kanapaina egin da bai/ez Iritsi den pertsona kopurua.
1.3.i. Kirol espaziotan ematen diren jarrera LGTBIQ+ fobiokoak identifikatu eta horien aurrean jarduteko protokoloaren sorrera.			Protokoloaren sorrera bai/ez. Protokoloa jaso duten pertsona kopurua.
1.3.j. Kirol estrategia berria sortu.			Sortu da bai/ez
1.3.k. Kirol talde pribatuen hitzarmenetan LGTBIQ+ formakuntza eta protokoloa izatea klausula moduan xertatu.			Klausula kopurua

1.4. Euskararen garrantzia

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.4.a LGTBI+ neurriak gauzatzeko esleitzen diren dirulaguntzetan hizkuntza klausulak ezarri.			Klausulak txertatzea Klausula kopurua
1.4.b. Euskal LGTBI+ erreferenteen euskarri bat sortu.			Euskarriaren sorrera Euskarria zenbat pertsonengana iritsi den
1.4.d. Euskara ikasteko sarbidea berrmatuko duen herri-programa sortu.			Programaren sorrera.

1.5. Sexilioa

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.5.a. LGTBIQ+ izateagatik kanpora joan behar izan direnentzako harrera eta erreparazio neurriak diseinatu.			Neurri kopurua. Parte hartu duen jende kopurua.

1.6. Zuzentasun politikoa

Neurriak / Ekintzak	Ardura dunak / Sailak	Epea	Adierazleak
1.6.a. Indarkeria sotila esplizitatu eta espazio publikora eramateko kanpainaren sorrera.			Kanpaina sortu bai/ez Iritsi zaien jende kopurua.

**Suder
gintza**

